

# ek!

eta kitto!  
euskara elkarte

2025eko martxoak 28 · 1349 zenbakia



## EUSKARAZ SOZIALIZATZEKO AUKERAK ETA ERRONKAK



# URRATEGI

INTERIORISMO  
barne diseinua

dena  
sukaldean  
hasten da

dica fama  
SUKALDEAK SOFAK

[www.urrategiinteriorismo.com](http://www.urrategiinteriorismo.com) • Azpeitia Arretxe 9 Eibar Arragueta 27





# IRAZABAL

clínica dental



**Ainhoa Zulueta**  
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.  
**Euskal Herriko Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,  
Periodontzian, implantologian.  
**Leongo Unibertsitatea.**  
Diplomatua Aho Kirurgian,  
**Bartzelonako Unibertsitatea.**  
Hortz-Estetikan Diplomaturua.  
**Madrigo Unibertsitate Konplutentsea.**  
Hortz-Estetikan Diplomaturua.  
**Autran Institutoa. Bartzelona.**  
Etengabeko Formakuntza.  
**New York-eko Unibertsitatea.**  
Oklusioan Graduondoa.  
**Anibal Alonso Doktorea.**

## Irribarreetan adituak

### Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

**JARRAI IEZAGUZU**

 **Facebooken:** Clínica Dental Irazabal [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)



**IRAZABAL**  
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**  
Tel.: 943 20 85 52 - [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)



# Jarraitu gaitzazu!

[www.etakitto.eus](http://www.etakitto.eus)



@etakitto



Orain dela 30 urte inguru Yura eta Sasha hartu zituzten Ione Martinezen eta Rosa Gonzalezen familiek, eta harrezkero harreman estua izan dute eurekin, familia bihurtzeraino. Orain, eurak egin bezala, uda honetan Txernobyngo haurrak hartzeko kanpaina jarri du martxan Chernobil Elkarteak.

**eta kitto!**  
eusgara elkarteak

#### ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkartea

#### HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

#### TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

#### ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

aldizkaria@etakitto.eus

#### ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

#### ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Ander

Fernandez, Jose Luis Gorostegi,

Silbia Hernandez eta Yanire

Sagredo

#### ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

#### KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

#### ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

#### DISEINUA

Maku Oruezabal

#### MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

#### HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

#### PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

#### TELEFONOA

943 20 67 76

#### AZALA

Ekhi Belar

#### BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

#### TIRADA

7.800 ale

#### INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

#### COPYRIGHT-A

...eta kitto!

#### LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



Eibarko Udalak eta  
Gipuzkoako Foru Aldundiak  
lagundutako aldizkaria



# Eskutitzak



## Eskerrik asko ELArri eskainitako laguntzarengatik

Merkaleko langileok eta kirol udal instalazioetako atezainok argi daukagu zuek egindako lanarengatik izan ez balitz ez genituela lortuko gure lanaren alde eskatutako baldintzen hobekuntzak. Oztopoz beteriko bide malkartsuari egin behar izan diogu aurre, eta hor zuen eskutik lortu dugu aurrera egitea, azkenean argia ikusi arte... Guretzat lagunak, psikologoak, aholkulariak... askotariko funtzioak bete izan dituzue. Badakigu behin baino gehiagotan ogia aukeratzen dela eskubideen defentsaren aurretik, baina arlo horretan ere zuen babesa izatearen zortea izan dugu. Mila esker gure alde egin duzuen lan guztiagatik.

Merkalekin lan egin duzuen Maria Uria, Jorge del Olmo eta Ainhoa Arretxeri. Eta atezainekin lan egin duzuen Roberto Silva, Pablo Garmendia eta Itoiz Furundarenari.

### Merkaleko langileak eta udal kirol instalazioetako atezainak

# Hortik esanak



Sanferminetako txupinazoan, kamerak plazako teilatuetan jarrita, ikusi dugu urtero gauza bera gertatzen dela: plazan sartu bezain pronto eta lau laguneko taldeak sortzerakoan, gizabanakoak jende masarekin bat egiten du; batzuek ezkererantz eta beste batzuek eskuinerantz biratzen dute. Ez da kaotikoa; maiztasun bereizgarria duen patroia bat ikusi daiteke: pertsona bakoitzak 1 eta 3 metro arteko diametroa duten zirkuluak egiten ditu, oharkabean eta denbora tarte jakin batean. Plazan gertatzen diren mugimendu zirkularrak gero eta handiagoak bihurtzen dira, eta 18 segundo behar dira mugimendu horietako bakoitza amaitzeko. Txupinazoaren ondoren, udaletxetik dozenaka txistulari ateratzen dira. Giza itsasoa bitan banatzen dute udaltzainek, eta arrakala eratzten dute plaza erdian, musikariak bertan sartzeko. Hesi moduko bat dira, eta presio uhinek ez dituzte poliziak eta gaiteroak zeharkatzen. Plaza bitan zatitzean, tamaina desberdineko taldeak daude, baina mugimendu bera ikusten da berriro. Horrela egiaztatu genuen oszilazioa plazaren tamainaren arabera zela eta, txikiagoa bazen orbita, lehenago osatzen zela. Gustatuko litzaidake Iruñeko kale batzuetako masen portaera neur-tzea, bidegurutzeetan, baita erraldoiak ateratzen direnean ere. Udaletxe plaza baino leku arriskutsuagoak dira horiek, ustekabeko estutasuna sortzen duten nahi gabeko mugimenduak gertatzen baitira.

**IKER ZURIGEL, Nafarroako Unibertsitateko fisikaria**

### ORDU ALDAKETA

Asteburuko zapatutik domekarako (martxoak 30) goizaldeko 02:00ak heltzean, erloju guztiak ordubete aurreratu egin beharko ditugu, 03:00etara. Beraz, ofizialki ordubete gutxiago izango du asteburuko domekak. Udako ordutegiak urriaren 26ra arte iraungo du, negukoa berriro indarrean jarri arte.



## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**PIEZA** → Makina, mekanismo edo tresna baten osagai bakoitza. “Baskulia pieza inportantia eskopetan”.

Lan-eredu baten arabera egindako banakako elementu bakoitza. “Hori pieziori makiña honetan 60 pieza minutuko egitten ipini leike”.

Musika-lana. “Hi, esaidak aurtengo jaixetan ze piezatzuek jotia nahi dozuezen”.



Idurre Iriondo

**Farmaziak**

- BARIXAKUA 28**
- EGUNEZ | Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- ZAPATUA 29**
- EGUNEZ | Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- DOMEKA 30**
- EGUNEZ | Lekunberri** (Isasi, 31)
- ASTELEHENA 31**
- EGUNEZ | Zulueta** (San Agustin, 5)
- MARTITZENA 1**
- EGUNEZ | Elortza** (J. Gisasola, 18)
- EGUAZTENA 2**
- EGUNEZ | Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- EGUENA 3**
- EGUNEZ | Mendinueta** (Urkizu, 6)
- BARIXAKUA 4**
- EGUNEZ | Zulueta** (San Agustin, 5)

**GAUEZ BETI,** 2025ean,  
Lekunberri (Isasi, 31)

**Telefono jakingarriak**

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

**Hildakoak**

- **Maria Ines Idigoras Baskaran.**  
78 urte. 2025-03-21.
- **Petra Hernandez Garcia.**  
95 urte. 2025-03-21.
- **Maria Eugenia Maidagan Barrenetxea.**  
74 urte. 2025-03-24.
- **Ines Merino Garcia.**  
91 urte. 2025-03-24.
- **Cristino Gomez Sanz.**  
75 urte. 2025-03-25.



## Zabalik dago MAKE IN! Ekintzailletza Industriala programarako izen-ematea

Debarreneko industriaren etorkizuna bultzatzea helburu duen ekimena da *Make In!* izenekoa, Debegesa Garapen Agentziak eskualdeko ekintzailletzari laguntzeko beste eragile batzuen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin antolatutakoa. Azaldu dutenez, “industriari lotutako *Startups* edo enpresa-ekimenei eta *seed* edo *seed aurreko* fasean daudenei zuzenduta dago, baldin eta gutxienez produktu bideragarria edo eraikitzen ari dena badute. Garrantzitsua da kontuan hartzea programara aurkezten diren ekimenek osagai teknologikoak edo negozio-eredu berritzaileak izan behar dituztela, esparru honetara lotutakoak: fabrikazio gehigarria, ikusmen artifiziala, RV/RA, robotika, IA, Big Data eta IoT”.

Programak hainbat abantaila eskaintzen dizkie parte-hartzaileei: erreferentziatzeko industria-sare baterako sarbidea (BPTD elkarte), bezero potentzialetarako sarbidea, talenturako sarbidea, mentorizazio pertsonalizatua sektoreko aditue-

kin, laborategi espezializatuak, lan-espazioak, prestakuntza eta ekitaldiak, inbertitzaileentzako sarbidea eta finantzaketa, besteak beste.

### Apirilaren 25era arteko epea

Apirilaren 25a izango da programan izena emateko azken eguna (<https://makein.debegesa.eus> helbidean). Ondoren, Startup parte-hartzaileak hautatzeko prozesua martxoan zehar egingo da, programa apirilaren 30ean hasiko da, eta maiatzaren amaierara arte iraungo du. Eta prestakuntza-saioak apirilaren 30ean, eta maiatzaren 8an, 16an eta 23an egingo dira”. Arduradunen berbetan, “aurreko edizioetan parte hartu dutenek inguruko enpresa industrialekin dagoen harreman zuzena nabarmentzen dute, eta horrek balio handiko kontaktu-sare bat ehuntzeko aukera ematen du, baita lankidetzaproiektuak garatzeko aukera ere. % 100 Startupsetara bideratutako programa da, eta parte hartzen duten enpresen tipologiaren arabera egokitzen da”.

## Paziente onkologikoen bizi-kalitatea hobetzeko ekimen berria abiatuko da

*Mogidu* Eibarko Jarduera Fisikorako Orientazio Zerbitzua pazienten onkologikoak artatzen hasiko da urritik aurrera, jarduera fisikoa tratamendu medikuaren osagarri gisa sustatu nahi duen ekimen baten bidez. Neurri horrekin, Eibar Gipuzkoako beste sei herrirekin batera arituko da proba pilotu batean, Onkologikoko eta Minbizia-aren Aurkako Espainiako Elkarte-ko (AECC) profesionalek jarritako tratamenduari jarraipena emateko. Gaur egun, *Mogiduk* Toribio Etxebarrian eta Eibarko Ospitalean eskaintzen du zerbitzua, baita Astelena frontoiko bulegoan ere. Arreta-ordutegia hau da: martitzenean, 11:00etatik 17:00etara; eta barixakuetan, 09:30etik 13:30era. Informazio gehiago nahi izanez gero, 688724174 telefonora deitu edota [mogidu@eibarkirola.eus](mailto:mogidu@eibarkirola.eus) helbide elektronikora idatzi daiteke.



## Nekazaritzako IAT, apirilaren 2an Eibarren

2025eko nekazaritzako ibilgailuen aldiko azterketa teknikoa Eibarren egiteko aukera izango da apirilaren 2an, Matsarian (aparkalekuan), 09:00etatik aurrera. Txanda eskatzeko 943 769 753 telefonora deitu daiteke.





## Soldata eta pentsio duinen aldeko manifestazioa Eibarren

Soldata eta pentsio duinen aldeko manifestazioak deitu dituzte Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak eta euskal gehiengoak osatzen duten sindikatuek, apirilaren 5erako. Mobilizazio nagusiak Hego Euskal Herriko hiriburuetan izango dira, baina Eibarren ere manifestazioa egingo da egun horretan, 12:00etan Untzaga plazatik

abiatuta. Bestela, deialdi orokorrrak hauek dira: Bilbon (17:30ean Jesusen Bihotzetik), Donostian (17:30ean Boulebardetik), Gasteizen (12:00etan Artiumetik) eta Iruñean (18:00etan Baluarteko plazatik). Pentsiodunek herritar guztiak deitu dituzte kalera irten eta manifestatzera, “langile eta pentsiodun guztiei bizi-baldintza dui-

nak izatea bermatuko dien soldata eta pentsio nahikoak eskatzeko”.

Deialdiarekin batera zabaldu duten komunikatuan salatzen dutenez, “onartezina da finantza- eta energia-enpresa handiek mozkin-errekorrak gainditzen dituzten bitartean, gero eta langile eta pentsiodun gehiagok gizarte-bazterkeriara eta pobrezia eramatzen dituzten soldata eta pentsioak izatea. Oinarrizko borroka da hau, genero arrakalarekin amai dezagun, emakumeen aurkako bidegabekeria onartezina baita”.

## Bihar agurtuko da Zaporeak proiektuari laguntzeko erronka, Ermuan tuperrak erosiz

Gaur amaituko da Zaporeak proiektuari laguntzeko Debabarrenean egin den janari bilketa. Aurreko edizioetan bezala, herri bakoitzean elikagai bat bildu da, eta Eibarren pardina dilistak jaso dituzte, Lesbosko (Grezia) kanpalekuetan dauden errefuxiatuei jaten emateko. Aurreko urteetan bezala, erronkari amaiera emateko tuper solidarioa antolatu dute: ekitaldia Ermuan

egingo da bihar, 14:00etatik 15etara bitartean Orbe Kardinalaren Plazan. Debabarreneko sukaldariak janaria prestatzen emango dute goiza, plazan bertan, eta ondoren tuperrak (erdia lentejak bakailoarekin, beste erdia arroz Lumagorrirekin eta fruta pieza bat) 5 eurotan erosi ahaliko dira. Amaieran, dirua lortzeko saldu dituzten rifen zozketa egingo da plazan bertan.





## Merkatu Plazari ikusgarritasuna emateko proiektua abiatu du Udalak

Errebaleko merkatua sustatu eta dinamizatzeko proiektua abiatu du Udalak, aurreko astean jakinarazi dutenez. Proiektuak hainbat esku-hartze planteatzen ditu, “kanpokoaren eta barrukoaren arteko ikusgarritasuna eta lotura hobetzeko”. Hiru jarduketa mota egingo dira: batetik, lokaletako bat udal-bulegoa izango da. Udaletik adierazi dutenez, “horrela, herritarrek hurbilago izango dituzte eskatutako zerbitzuak, eta merkataritza dinamizatzeko espazio bat zabalduko da, merkatua erakargarri bihurtzeko egiten diren

kanpainak aprobetxatuz”. Bestetik, merkatu-plazaren barruko espazioa hobetu eta berrantolatuko da, eta baserritarrei gauzak biltegitratzeko leku handiagoa emango zaie. Eta, azkenik, merkatuaren kanpoko ikusgarritasuna hobetzeko, fatxadan informazio-pantaila bat jarriko da, barruko zerbitzuen berri emateko, eta beste ekitaldi batzuk iragartzeko. Argidun errotuloa ere ipiniko dute. Proiektu hau Eusko Jaurlaritzak Debabarrena Lehentasunezko Jarduera Eremu izendatzearen ondorioz lortutako funtsekin finantzatuko da.

## Udako udalekuetako eskaintzan izena emateko epea zabaldu dute

Apirilaren 7ra bitartean egongo da zabalik “Oporrak afariketan”, “Udanjolasean”, “Firin Faran” eta “Umiak Firin Faran” udaleku irekietan parte hartzeko izen-ematea. 5-11 urte bitarteko haurrek aukera paregabea izango dute udako oporraldietan primeran pasatzeko. Aisialdi eskaintza hori Eibarko Udalak antolatzen du, Astixaren bitartez. Programa bakoitzak egutegi, aukera eta ezaugarri desberdinak izango ditu. Bakoitzari buruzko informazio zehatza Udalaren webgunean kontsultatu daiteke.



## Al Fitrah elkartea ezagutzeko gonbidapen irekia, aurreiritziekin amaitzeko

Arazakeriaren Aurkako Eguna-ekin batera, Urkizuko dorreetan dagoen Al Fitrah elkarteak atek zabaldu zituen aurreko barixakuan, orain arte egindakoaren errepaso egiteko. Musulmanak Ramadana ospatzen ari direnez, eguzkia sartu ondoren baraua amaitzeko egiten duten afarira (*Iftar* izenekora) gonbidatu zi-

tuzten ekitaldira joandako guztiak. Udaleko ordezkarienez gain, hainbat elkarte erlijiosok osatzen duten Juntos por la Convivencia taldeko kideak eta Al Fitrah elkartekoak bildu ziren ekitaldian. Esan zutenez, familiak eta, batez ere, gazteek osatzen dute elkartearen ardatza, eta hainbat formakuntza egiten dituzte.





## Merkataritza sustatzeko ihes-gela antolatu du biharko Eibarko Dendarien Elkarteak

Eibarko Dendarien Elkarteak *Eibar Villa Armera* herri-barruko bi ihes-gela antolatu ditu biharko, "hiriko saltokietan zehar ibilbide ezberdinak eginez, merkataritza bultzatzeko". Ekitaldia goizeko 10:00etan hasi eta 13:00etan amaituko da, Untzaga plazan, eta bi eta bost lagun arteko taldeetan hartu daiteke parte (16 urtetik beherakoek heldu batek lagunduta joan beharko dute): Untzagatik abiatuta, pistak jarraitu beharko dituzte, ekimenarekin bat egin duten saltokietako ibilbidea bete arte.

Horretarako 45 minutu izango dituzte. Bi onentzat saria egongo da: 300 euroko balioa duen Eibar Oparitu txartela, elkarteko bazkide diren dendetan gastatzeko. Sari-banaketa proba amaitu eta jarraian, 13:30ean egingo dute, Untzagan. Izen-ematea aurretik egin daiteke, Dendarien Elkartearen Instagramaren bitartez (@erosieibarren\_), eta saltokietan zein kalean jarritako karteletako QR kodearen bidez. Bestela, bihar zuzenean Untzagara joan daiteke (libre dauden plaza guztiak bete arte).

## Miguel Angel Elizaga dultzaineroa hil egin da, 92 urterekin

Sanjuanetan urte gehien egin zituen dultzaineroa, Miguel Angel Elizaga, aurreko zapatuan hil zen, 92 urterekin. Musikarien sagakoa zen Miguel Angel, Hermanos Elizagako partaidea, eta 60 urte baino gehiago eman zituen gurean, Sanjuanek ospatzen hasteko Estaziñotik irtezen den kalejiran parte hartzen.



## AUTUAN

### EDUKIONTZI MARROIEN ITXIERA ATZERATU EGIN DA

Debabarreneko Mankomunitateak txartelak banatzeko epea luzatu du, oraindik egin ez duten herritarrek txartelak jaso ahal izateko eta, horrekin batera, biohondakinen edukiontzia iren xiera martxoaren 31ra arte atzeratzeko erabakia hartu dute. Diotenez, "Mankomunitateak badaki prozesu horretan herritar batzuek eragozpenak izan dituztela, eta herritarrek erakutsitako pazientzia eskertzen dugu. Bestalde, neurri gehigarri gisa, martxoaren 26an egin den Batzar Orokorrean, tasa bereziaren aplikazioa 2025eko uztailaren 1era atzeratzea proposatu dugu". Eman dituzten datuen arabera, martxoaren 10ean txartelak banatzen hasi zirenetik martxoaren 20ra arte, aurreikusitako 13.414 txarteletatik 9.880 banatu dira, hau da, txartel guztien %73,65: "Zehazki, 7.127 txartel etxeetan banatu dira, eta 2.753 txartel Untzagako nagusien-etxeko bulegoetan".



### APIRILAREN 5ean IPURUAKO IGERILEKUA ITXI EGINGO DUTE ARRATSALDEZ

Eibarko Kirol Patronatetik jakinarazi dutenez, apirilaren 5ean, larunbata, Ipurua kiroldegiko igerilekua arratsaldean (16:00etatik 20:00etara) itxita egongo da, Eibar Igerixaneko benjaminen igeriketa jardunaldiaren ondorioz. Horrek eragin ditzakeen eragozpenak direla eta, aurretik barkatzeko eskatu dute.



Ekitaldiko  
BIDEOA ikusteko



## Mintegia, euskararen aldeko jardueren ikur

Hainbat arlotako bost hizlariren ekarpenak eta hausnarketak entzun genituen martitzen goizean Eibarren egin zen Euskararen Sozializazioari eta Transmisioari buruzko Mintegian. ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen duen ekintzaren 15. edizioa izan da, eta, aurreko urtean bezala, SD Eibarren prentsa-aretoan egin zen, 09:00etatik 14:00etara bitartean. Adimen artifiziala, ikus-entzunezkoak, giza baliabideen kudeaketa, komunikazio publikoa eta kirola bezalako gai estrategikoak landu ziren, beti bezala, euskararen betaurrekoetatik.

...eta kitto! Euskara Elkarteak eskerrak eman nahi dizkie bertara hurbildutakoei eta Eibarren AKEBAI, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzari ere, ekitaldia urtero antolatu ahal izateko ematen duten babesarengatik. Bereziki eskertu nahi dute antolatzaileek S.D. Eibarren prestutasuna eta erakutsitako gogoia Mintegiaren garapena egokia izateko.



Aitzol Astigarraga, Orai NLP zentroa

## Euskararen aukerak eta erronkak adimen artifizialaren garaian

Aitzol Astigarraga Orai NLP zentroko informatikaria eta koordinatzaileak “Euskararen aukerak eta erronkak adimen artifizialaren garaian” gaia ekarri zuen. Euskararen prozesamendu konputazionalan aritzen da Aitzol 14 lankiderekin batera Orai NLP adimen artifizialeko zentroan. Llama-eus-8B garatu dute, hizkuntza eredu neuronal berri bat (LLM, Large Language Model), euskara idatzia ulertzea eta sortzea eskatzen duten adimen artifizialeko tresnak errazago garatzeko diseinatua; besteak beste, zuzentzaile gramatikalak, edukiak sortzeko sistemak, hezkuntza-materialak sortzeko sistemak, bilatzaileak, txatbotak eta itzultzaile automatikoak. Llama-eus-8B eredu berria modu librean eskuratzeko moduan jarri dute.

Euskarak ingurune digitalean duen lekuaz aritu zen hasieran: “Munduan 7.000 hizkuntza baino gehiago daude eta hizkuntzen %5 baino ez da erabiltzen Interneten, eta horrek gainerako %95ak heriotza digitalera kondenatuko ditu”. Esfera teknologiko digital horretan non dago euskara? Hizkuntza handiengandik nahiko urruti, baina beste estatu-hizkuntza batzuen pare gaudela esan zuen Aitzolek. Handiengandik urruti egon arren, komunitate aktiboa daukagu bere esanetan, eta “euskarazko tresna gehienak hemen sortu dira”. Euskarazko edukiak ere hor daude (adibidez, Euskal Herriko webguneetan euskarak %14ko presentzia du eta .EUS domeinuko webguneetan %75ekoa). Wikipedia ere hor dago, baina hizkuntza handiekin alderatuta oso txikia da euskararen presentzia: baina edukiak hor egon arren, askotan horietara iristen ez garelako uste du



Aitzolek: “Besteak beste, mugikorrek ez ditugu euskaraz konfiguratuta, eta horrek asko kezkatzen gaitu”.

Adimen artifiziala zer den azaldu zuen Aitzolek: gizakien pareko adimena erakutsiko duen makina eta programak sortuko dituen informatikaren arloa, hain zuzen. Adimentsu gisa ulertzen duguna, teknologiarekin eta garaiarekin batera aldatzen dela ohartarazi zigun. Aplikazio asko naturalizatuta ditugu: “Denak adimen artifizialean oinarrituta daude (etxeko roomba, interneteko bilatzaileak, ahots bidezko laguntzaileak...)”. Gogora ekarri zuen “abiadura bizian” ari direla aurrera egiten teknologia horiek, eta aparteko oztopoak dituztela hizkuntza handien ondoan gainerakoek, “testu edo datu bilduma” gutxiago dituztelako eredu horiek elikatzeko. Hor dago, hain justu, arazoetako bat. “Horrenbestez, bestelako estrategia batzuk erabili behar dira hizkuntza handietan erabiltzen diren adimen artifizialeko tresnak euskarara ekartzeko, eta estrategia horien bilaketan aurrerapauso handiak lortzen ari da euskal ikertzaile komunitatea”.

Tresna hauen alde egin beharko genuke itsuitsuan? galderaren aurrean, dilema hori hizkuntza guztiek daukatela esan zuen, txiki eta handiek: “Gure etorkizuna zein izango den ez dago argi, baina adimen artifizialik gabe nahiko larri ibiliko garelako uste dut”.





**Asier Basurto, Soziolinguistika Klusterra**

## Jendaurrean.eus gida

“Jendaurrean.eus erakundeek euskaraz komunikatzeko gida”-ren gainean aritu zen Soziolinguistika Klusterreko Asier Basurto ikerlaria. Mota guztietako erakundeek beren komunikazioetan euskara gehiago nola erabil dezaketen laguntzeko gida da Jendaurrean.eus. Soziolinguistika Klusterrak, Euskal Herriko Unibertsitatearekin elkarlanean, hainbat erakunderekin bideratu duen bederatziko urteko jardunbidearen emaitza da.

Komunikazio publikoa izaten da entitate askoren zereginetako bat. Erakunde handiei zein txikiei, publikoei zein pribatuei, guztiei egokitzen zaie jendaurrean aritzea, eta hor aintzat hartu beharreko aldagaietako bat izaten da hizkuntzaren kudeaketa. Online aurki dezakegun gida horretan biltzen dira erakunde batek komunikazio publikoan hizkuntzak egoki kudeatzeko irizpideak, esperientziak, tresnak eta gomendioak. Euskarari ahalik eta toki gehien egitea eta jende guztiaren esku jartzea da euren asmoa: “Era eta tamaina askotako erakundeei komunikazio erabilera ona, eroso eta



eraginkorra egiten lagundu nahi diegu. Erakundeetako arduradunentzat, komunikazio arduradunentzat, euskara bultzatzen dihardutenentzat...oso baliagarria izan daiteke. Hizkera akademikoa saihestuz egin dugu, eta behar desberdinei egokituz. Era askotako baliabideak, erreferentziak, kasu praktikoak, gomendioak eta tresnak aurkitu daitezke bertan”. Kontsultategi bat da azken batean, “eskura izateko, behar denean kontsultatzeko”. Euskarri guztietan (sare sozialak, webguneak, ekitaldiak, bilerak...) nola eragin azaltzen da. Proiektua ezagutzeko Jendaurrean.eus atarian sartu besterik ez daukazu.

**Arrate Illaro, hizkuntza normalkuntzako teknikaria**

## Giza baliabideen kudeaketa euskararen normalizazioaren sektorean

“Giza baliabideen kudeaketa euskararen normalizazioaren sektorean: talentuaren atxikipena eta pertsonen motibazioa” izenburua izan zuen Arrate Illaro euskara teknikariaren hitzaldiak. Arlo publikoan dihardu gaur egun, baina Euskaltzaleen Topagunean eta Euskaraldiaren lehenaldiak koordinatzen aritutakoa ere bada. Euskararen normalizazioan diharduten langileen motibazioaren gaineko lan batengatik eman diote Txillardegi-Hausnartu saria Soziolinguistika Klusterrak eta Euskal Herriko Unibertsitateak. Euskararen normalizazioaren alde sektore publikoan zein sozialean ari diren langileen motibazioari eta talentu atxikimenduari erreparatzen die lan horrek, langileen zaintzaren beharra azpimarratuz eta motibazioan eragiten duten aldeko eta kontrako faktoreak azalduz. Ikerketaren arabera, arlo horretan ari diren langile gehienek bokazioa eta lotura afektiboa dituzte euren jardunari dagokionez. Hala ere, beste hainbat arlotan gertatzen den bezala, zailtasunak daude langile kualifikatuei eusteko.



Sektorean bertan dauden aldeetan ere jarri du arreta eta, bere ikerketaren arabera, “mugimendu sozialaren eta erakunde publikoen artean zenbait desberdintasun atzematen dira”. 109 teknikariaren artean egin du galdeketa, eta ondorioztatu du orokorrean asebetetze eta motibazio handiagoa dagoela euskalgintza sozialean eta enpresa eta aholkularitzetan, administrazio publikoan baino. “Soldata, lan karga, lanarekiko deskonexioa eta besteren bat kenduta, galderetan aipatu nituen beste faktore guztietan ikuspegia beti izan zen baikorragoa alor sozialean; langileen garapenean, talde giroan, lankideak aliatu moduan sentitzean, arduradunaren inguruko ikuspegian, erakundeak pertsonen zaintzan jokatzeko eran, gardentasunean, komunikazioan, kontziliazioaren erraztasunetan...”.

**Arrate Fernandez, SD Eibar**

## Euskara eta SD Eibar

“Euskararen ibilbidea SD Eibar-en” aztertu zuen Arrate Fernandez SD Eibar taldeko komunikazio eta protokolo arduradunak. Lehen euskara plana 2004. urte inguruan egin bazen ere, “2017an Euskara Bartzordea sortu genuenetik pauso nabarmenak eman ditugu euskararen arloan. Ezagutza, motibazioa eta erabilera dira gure oinarriak eta hainbat ekimen jarri ditugu martxan, hala nola, euskararen erabilera bultzatzeko plan estrategikoa, klubeko langileen eta jokalarien euskarazko trebakuntza, euskararen presentzia handitzea komunikazioan, Ipuruan euskararen ikusgarritasuna handitzeko ekintzak, harrobiko jokalariekin erabilera sustatzeko programak, euskararen aldeko kanpainak eta ekimenak (Euskaraldia, AKEBAI, ...eta kitto!-rekin elkarlana...) eta Eusko Jaurlaritzaren eta beste erakundeen laguntzarekin proiektu berriak garatzea euskararen sustapenerako”, azaldu zuen Arratek.

Arratek Euskararen Baloia ekimena azpimarratu nahi izan zuen, “zeina klubaren euskararekiko kon-



promisoaren ikur bilakatu den”; 2019an sortu zen ekimenak euskararen erabilera sustatzen du Eibar-ko eta inguruko herrietako ikasleen artean, eta Ipuruako obretan aurkitutako baloi baten istorio polita eta hunkigarria kontatzen du. Bestalde, futbolararen euskarazko hiztegia sortu dute, eta orain dela gutxi Ipuruan banatu zuten zaletu guztien artean. ...eta kitto! astekariarekin batera herritar guztiengana helarazteko asmoa dutela aurreratu zuen. Arratek berak euskararen erabilerarekiko egin duen ibilbidearen testigantza ere eman zigun, eta euskaldunberri edo euskaraz jarduteko ohiturarik ez dutenak ekinean jarraitzera animatu zituen.

**Alex Aginagalde, Pantailak Euskaraz**

## Urak eginen du bide

Pantailak Euskaraz mota guztietako pantailetan euskararen presentzia biderkatzearen aldeko ekimena da, eta “Urak eginen du bide” dokumentala proiektatu ondoren hartu zuen hitza Alex Aginagalde bozeramaileak. Aginagaldek azaldu zuenez, gure bizitzako ordu asko ematen ditugu pantaila txiki, ertain, edo handien aurrean: sare sozialetan, streaming plataformetan, zinema, telebistan, bideo-jokoetan... Edukiak kontsumitu eta sortzen ditugun arren, euskarak oso presentzia urria du horietan guztietan. Horrek eragin kaltegarria dauka euskararen jabekuntzan nahiz erabileran. “Euskal Herrian orotara 900 film baino gehiago estreinatu dira 2024an, eta horietatik bi baino ez dira euskaraz”, esan zuen Alexek. “Euskararen presentzia legez bermatuko duen” araudi bat jorratzea eskatu zien erakunde publikoei, euskarazko ekoizpen, bikoizketa eta azpidatzei bideraturiko baliabideak biderkatzeko. 2024an zinema komertzialetan egondako ia 197.000 emanaldietatik 1.800 baino gutxiago (%0,9) izan dira euskaraz. Bestalde, Streaming plataformei ezarritako kuotek



hobekuntzak ekarri dituztela esan zuen Alexek; izan ere, “plataformetan euskaraz eskaintzen dena %3 da gaur egun”. Laburbilduz, hainbat erronka aipatu zituen Alexek: euskaldunok zinema aretoetan jasaten dugun diskriminazioa amaitzeko araudi bat sortzea; ekoizpena eta bikoizketa gehitzea; eta ikus-entzunezko sisteman ikus-entzunezkoen kontseilu bat sortzea, gainbegiratze lanak egiteko. Eta, biribiltzeko, bi eskaera: “Erakundeei eskatuko genieke euskara erdigunean jartzeko. Eta herritarrei, aktiba daitezela”.

Bien bitartean, Pantailak Euskaraz-ek euskarazko ekoizpenak eta euskarara bikoiztutakoak kontsumitzera animatu nahi dituzte euskal herritarrak. Hain zuzen, zinetan eta streaming plataformetan dagoen euskarazko eskaintza eguneratua ezagutzeko, ZerNonIkusi.eus webgunean.

# Zaintzako eta etxeko langileen errealitatea ezagutzeko aukera

Etzi, hilak 30, Etxeko eta Zaintzako Langileen Nazioarteko Eguna da eta, euren lana eta bizitza ezagutarazteko asmoz, ekintza berezia egingo dute bihar, Portalean, 17:00etan hasita (umeentzako zaintza zerbitzua egongo da). 'Askotariko emakumeen ahotsak' izena du ekimenak eta bertan, Eibarren lehen aldiz, gure herriko etxeetan lan egiten duten emakumeek euren lanaren eta bizitzaren inguruan jardungo dute, eta bertaratuko direnen baldere erantzungo diete.

**A**ndretxean lan aholkularitza zerbitzua eskaintzen dihardute etxeko langileentzat. Merlin Medina Acosta abokatu arduratzen da zerbitzua eskaintzeaz eta bera izan da biharko ekimenaren sustatzailea. Bere iritziz, zaintzako eta etxeko lanetan interna moduan ari direnen lana "XXI. mendeko esklabutza da". Abokatuak zenbait urte daramatza zerbitzu hau eskaintzen eta, bere esanetan, "urte guzti hauetan ez dut interna baten kontratu legal bat bera ere ikusi". Are gehiago, interna berba ere existitu ezin dela dio. "Legeak dioenez, langile batek asteen 40 orduz egin beharko luke lan eta beste 20 ordu gehitu ahal dira 'presentzia ordu' bezala, baina etxean zaintzen pasatzen dituzten gauak ez dira kontuan hartzen", zehazten du. Beraz, langile hauen eskubideak urratu egiten dira eta, hori gutxi balitz, kalkuluen arabera, langile bakoitzari hilean 700 eurotik gora ez zaizkio ordaintzen egiten duen lan extragatik. "Eta horretaz

aparte, irainak eta mespretxuak jasan behar dituzte kasu askotan", salatzen du Medinak.

2024an 265 kasu inguru artatu zituzten zerbitzu horren bitartez eta horietatik lau bakarrik izan ziren gizonezkoak. Sektore feminizatua da argi eta garbi, eta pertsona migratuak dira gehiengoa. Izan ere, emakume gehienek Dominikar Errepublika, Nikaragua, Kolonbia, Honduras, Venezuela, India, Brasil, Kuba, Bolivia, Argentina, Pakistan, Maroko, Filipinak, Ekuador eta Senegalen dute jatorria, ordena horretan. "Zerrendan azkenak jatorri eibartarra dutenak dira, orokorrean ez dutelako interna moduan lan egiten", argitzen digu Medinak.

**Hamar emakume, hamar istorio**  
Eibartar askorentzat ikusezinak dira, inoiz edo oso gutxitan entzun dugu euren ahotsa, ezer gutxi dakigu euren testuinguruaz eta bizitzaz, eta horregatik da garrantzitsua biharko ekintza. "Jatorri ezberdi-





Euren lanaren eta bizitzaren inguruan jardungo dute gure herrian zaintzako eta etxeko lanetan diharduten emakumeek.

netako hamar emakumek hartuko dute parte eta bakoitzak berarentzat migratzea zer den, Eibarren nola aurkitzen diren... azalduko du”, kontatu digu abokatuak.

Oso errealtate ezberdinak bizi izan dituzten emakumeak dira (“bartzuk oso gogorrak”), eta hasieran nahiko beldurtuta hartu zuten Medinaren proposamena. “Ez zuten egin nahi, baina pentsatzen dut oso garrantzitsua dela herriak eurak ezagutzea eta motibatzen joan dira”, Medinaren berbetan. Horrela, hizlarien hamar argazkiekin erakusketa egiteaz gain, bakoitzak bere testigantza emango du eta solasaldia edukitzea da asmoa, herriar oro gonbidatuta dagoelarik.

### Langileen eskubideak eta enplegatzaileen ardurak

Andretxeako lan aholkularitza zerbitzuaren bitartez zaintzako eta etxeko langileei lan-eskubideei buruzko orientazioa eta aholkularitza, prestakuntza-beharretan laguntza, gizarte-beharren arabera Gizar-

tekintza sailarekin koordinazioa, gizarteratzearen eta laneratzearen arloan bitartekaritza eta aholkularitza, eta enplegarritasun-maila txikiagoa eta lan-merkatuan sartzeko zailtasun handiagoa dutenei laguntza eskaintzen zaie. “Txarrena da langileek askotan ez dutela euren kontratuan jartzen duena jakiterik eta nominak ere ez dituztela jasotzen, legearen arabera jaso egin behar duten arren. Bitartekari lanak egiten dituzten agentzien bitartez lortzen dute lana eta hori guztia ezkutatzen diete. Langileek, askotan, ez dituzte euren eskubideak ezagutzen eta ez dute salatzen”, diosku abokatuak.

Zerbitzu horiez gain, urtean zehar bestelako ekintzak egiten dituzte hainbat asteburutan Portalean. “Interna moduan dauden etxeko langileek parte hartu ahal izateko”, argitzen digu Medinak. Horrela, iaz zazpi ekintza nagusi egin zituzten. “Emakumeen ahalduntzearen inguruko tailerrak, euren lan-eskubideen inguruko

saioak, lanean nola aritu daitezkeen azaltzeko tailerrak, autoestima-tailerrak, autozainketa... Eta horrez gain, irteerak egiten ditugu, antzerkira joaten gara... Batzuentzat antzerkira joaten diren lehen aldia izaten da. Eurek emozio handiz bizi dituzte horrelako ekintzak”. Gainera, Medinak esan digunez, “emakume hauetako asko bakarrik daude hemen”, eta horregatik da garrantzitsua horrelako sareak sortzea eta aholkularitza egokia jasotzea.

Langileei zerbitzua eskaintzeaz gain, enplegatzaileek ere bertara jo dezakete. “Kontratazio arduratsua egin nahi dutenei gauzak nola egin azaltzen diegu”, diosku abokatuak. “Egia esan enplegatzaile gutxi etorri dira. Ez dakit zer egin behar den gauza horietaz gehiago arduratu daitezen. Hemen gauza guztiak legearen arabera nola egin behar diren argituko diegu doako aholkularitza zerbitzua eskainiz”. Iaz zazpi enplegatzaile hartu zituen bulegoan eta beste birekin egin zuen berba telefonoz.

# “30 urteko harreman estua egin dugu Yura eta Sasharekin, guretzat familia dira”

ROSA GONZALEZ ETA IONE MARTINEZ • Txernobylgo haurren harrera-familiak



1986ko apirilaren 26an historiako istripu nuklearrik larrienetako bat gertatu zen Txernobylen (Istripu Nuklearren Nazioarteko Eskalan 7. mailan kokatzen dute, mailarik altuenean, Fukushima gertatutakoarekin batera). Hondamendiak oso ondorio larriak eragin zituen inguruko biztanleengan eta, laguntzeko asmoz, 1996an Chernobil Elkartearen sortu zuten Euskal Herrian.

**T**xernobylgo haurrei arreta emateko sortu zuten Chernobil Elkartearen eta Euskal Herriko familiek ateak ireki dizkiete hainbat udatan. Horren adibide dira Rosa Gonzalez eta Ione Martinezen familiak (izeba eta iloba dira gainera), Yura eta Sasha anaiak hartu baitzituzten orain dela 30 urte inguruan hasita, hainbat urtez. Azken urteotan, Kristina eta Liza Yuraren alaba bikiak etorri dira euren guretzat eta uda honetan harrera-familia izateko deia egiten diete eibartarrei. Hondamendi nuklearraren ondoren gerra jasan ostean, arnasa eman nahi diete Ukrainako haurrei.

## Nola gogoratzen duzue Yura eta Sasharen etorrera orain dela 30 urte?

ROSA: Ez zekiten nora zetozen ere eta euskaraz egiten amaitu zuten! Yuraren alabak ere berdin, euskaraz moldatzen dira.

IONE: 2022an, Ukrainako gerra hasi eta berehala etorri ziren amarekin (Marina), eta euren ikasturtea apirilean amaitzen denez (Internet bitartez jarraitu zuten ikasten), ekainera arte Urkizuko eskolan egon ziren. Gero, hurrengo ikasturte osoa Mogel Isasin egin zuten. Gazteleraz bazekiten, gure etxean gazteleraz

egiten dugulako, baina eskolan euskara ikasi zuten. ROSA: Mugikorraren laguntzarekin ikasi zuten, ukrainerara itzultzeko erabiltzen zutelako. Gainera, euskara ikasteko laguntza jaso zuten.

## Yura ezin izan zen etorri?

IONE: Ez, emaztea eta alabak bakarrik etorri ahal izan ziren, gerra zela-eta gizonezkoek ez zirelako Ukrainatik irteten lagatzen, gerrara joateko deitu ahal dietelako.

## Neskek nola lortu zuten Ukrainatik irtetea?

ROSA: Eurek bazekiten hemen familia zutela eta guk bilatu genuen hona etortzeko modua. Pablo nire semea Errumaniara joan zen euren bila, baina eurek pasaporterik ez zuten, ezin ziren hegazkinez etorri. Beraz, autobusean etorri ziren. Hiru eguneko bidaia izan zen.

## Zenbat denbora egon dira hemen?

IONE: Urte eta erdi egon dira, baina etxearen, familiaren falta sumatzen zuten. Burua Ukrainan zuten. Beraz, bueltatzeko, Poloniara hegazkinez joan ziren eta handik trenan hartu zuten Ukrainaraino.

ROSA: Dena gure eskutik egin dugu. 30 urteko harreman estua dugu eurekin eta guretzat familia dira.

## Harrezkero, berriaz etorri ahal izan dira?

IONE: Bikiek Chernobil Elkartearen bitartez itzultzeko aukera izan zuten iaizko udan. Oraindik udan



Txernobylgo haurrak udan Euskal Herrira etortzeko kanpaina jarri du martxan Chernobil Elkarteak EKHI BELAR

hona etorri daitezkeen umeen adin tartean daude (6 edo 7 urtetatik 14 urte arteko haurrak etortzen dira), baina datorren urtean agian ezin izango dira elkarrearen bidez etorri.

ROSA: Yura eta Sasha 18 urte eduki arte etorri ziren. Nahi bezala ibili izan ziren hemen. Natxitian (Bizkaia) egoten ginen udan, karabanan eta txabolan, gora eta behera, jolasten eta abenturetan, ume basatiak bezala.

**Aurtengo udan Txernobylgo haurrak ekartzeko kanpaina hasi da. Zer behar da harrera-familia izateko?**

ROSA: Ume bakoitza ekartzeak 630 euroko kostua du eta, harrera-familiei laguntzeko, rifa batzuk atera ditugu euro batean. Umeak bi hilabetez egoten dira hemen, uztailearen 1etik abuztuaren 28ra, eta tarte horretan eurekin egon behar zara, berdin dio hemen gelditu edo nonbaitera oporretan joan.

IONE: Apirilaren 15era arte eman daiteke izena harrera-familia izateko ([www.chernobil.org](http://www.chernobil.org) webgunean dago informazioa).

ROSA: Hainbat familiak eman du izena dagoeneko, baina zenbat eta familia gehiago lortu hobeto, haur gehiago etorri ahal izango direlako. Iaz, 120 ume in-

**“Umeen behar nagusia Ukrainan bizi den gerra giro horretatik irtetea da. Droneak etengabe pasatzen dira, estutasun egoeran bizi dira momentu oro...”**

guru etorri ziren. Euskal Herri osoko familiek hartzen dute parte ekimenean eta ume bakoitza toki batean egoten da, baina elkarrekin ere ekintzak egiten dituzte.

**Ume batzuek urteak daramatzate udan etortzen, ezta?**

IONE: Bai eta, gainera, urte batean ume batekin ondo moldatzen bazara, hurrengo urtean berriz ere berarekin egotea eskatu dezakezu.

ROSA: Normalean horrela izaten da. Umeak ezagutzen zaitu, konfiantza dago... Bestalde, umeak ekartzeko ez da ohiko familia izan behar. Adibidez, pertsona bakar batek ume bat hartu dezake etxean. Kontua da



BIDEOA



haurrei ingurune egokiak eskaintzea. Umeak umeekin egon behar dira.

#### **Ume horiek zein behar nagusi dituzte?**

ROSA: Landaguneetatik datozen umeak dira eta, batez ere, ondo elikatzen saiatzen gara. Orain, gerraren ondorioz, gehiago larritu da elikaduraren kontua. Txernobyl hobeto zigitatuta dago, baina oraindik hondamendiaren ondorioak nabari dira. Bestalde, behar nagusia gerra giro horretatik irtetea da. Droneak etengabe ari dira bertatik, etengabeko estatusun egoeran bizi dira, segurtasun faltarekin, umeak ezin dira lasai irten kalera jolastera... Txernobyl ez dago gerragune beroenean (Donetsk eta Jerson bezala), baina edozein tokitan erori daiteke 'petardazo' bat. Gureak Kiev inguruan bizi dira eta handik hurbil etxe batzuk desegin dituzte.

#### **Orain dela 30 urte nola animatu zineten Txernobylgo umeak hartzera?**

ROSA: Natxitian geunden eta egunkarian irakurri genuen Txernobylgo haurren harrera familiak behar zirela. Ahizpak (Ioneren amak) esan zuen bera animatuko zela, baina nik uda horretako oporrak programatuta nituen eta ezin izan nuen. Chernobil Elkarteak umeak ekartzen zituen lehen urtea zen, baina zerbait gertatu zen, 'ume sponsor' asko etorri zirelako.

#### **Zer dira 'ume sponsorrak'?**

ROSA: Dirua zuten familiek trukeak egin zituzten Txernobylen. Hau da, hona etortzeko apuntatuta zeuden familiei dirua eskaini zieten euren tokia erosteko. Orduan, dolarrak eta guzti ekarri zituzten ume batzuk etorri ziren. Familia batzuei demaseko mespretxuak egin zizkieten. Esaten zieten eurak oporretan zeudela eta familiak euren zerbitzariak zirela. Guk zortea izan genuen. Yuraren eta Sasharen aita zentral nuklearrean egiten zuen lan eta ama irakaslea zen. Familia zoragarria. Beraz, Yura ahizparengana etorri zen lehenengo urtean eta hurrengoan Sasha ekarri genuen.

#### **Sasoi horretan, Txernobylgo hondamendiaren biharumenean, nolako beharrak zituzten?**



**“Landaguneetatik datozen umeak dira eta, batez ere, ondo elikatzen saiatzen gara. Gerraren ondorioz, gehiago larritu da elikaduraren kontua”**

ROSA: Ondo elikatzeko beharra zuten. 8-9 kilo hartzen zituzten hemen

IONE: Beno, oso argal etorri ziren, baina ez ziren oso lodituta joan, osasuntsu besterik ez.

ROSA: Euren osasunarentzat oso garrantzitsua izaten zen uda hemen pasatzea. Defentsa asko lortzen zituzten.

#### **Nola jarraitu zenuten harremana edukitzen zuen familiakoak bihurtu arte?**

IONE: Hasieran, telefonoz egin behar genuen berba. Eurak hemen egoten zirenean ere, Natxitian, hotelera joan behar izaten ginen Txernobylera deitzeko. Orain, Internetekin, askoz errazagoa da eta etengabe egiten ditugu bideo-deiak.

EZTEIAK eta JAUNARTZEAK



KILIKLIK

# GEHIGARRIA

49. zenbakia. 2025eko UDABERRIA

## Behar duzun guztia Eibarren eta inguruan daukazu

Ezkontza edo jaunartze bat antolatzeko unea iristen denean, badakigu xehetasun bakoitzak balio duela. Leku aukeratzetik hasi eta ukitu pertsonal txikietaraino, denak laguntzen du egun ahaztezin bat sortzen. Eibarren eta inguruetan zerbitzu espezializatu ugari ditugu, ospakizun horien plangintza errazten dutenak, kalitatea, hurbiltasuna eta profesionaltasuna eskainiz.

Gure herrian eta inguruetan mota guztietako ospakizunetarako espazio eskaintza zabala aurki dezakegu: menu bereziak dituzten jatetxeak, baserri xarmagarriak, banketeetarako aretoak eta ospakizun naturalagoa nahi dutenentzako aire zabaleko gunek. Leku horietako askok zerbitzu pertsonalizatuak eskaintzen dituzte, familia bakoitzaren beharretara egokitutakoak.



KLIKLIK



**ROSANA**  
ILEAPAINDEGIA

943 120624

URKIZU PASEALEKUA, 7 - BEHEA

**"TIRO PITXOI JATETXEA"**

*Arraten*

- Eguneko menua
- Menu pertsonalizatuak
- Menu bereziak
- Karta...
- Ezkontzak
- Ospakizunak...

**TERRAZA EDERRA BISTA PAREGABEEKIN 943 20 88 59**

**Khôl**  
Estilistak

Ezagutu edertasun kontzientearen kultura berri bat aktibo botaniko % 100 naturalekin

Estazioño, 4  
943 254776



**fasprint**  
inprimategia

EZKONTZA GONBIDAPENAK  
gonbidapen pertsonalizatuak argazkiarekin

SERIGRAFIA

☎ 943 20 16 13 📱 688 68 73 85 Ego-Gain, 11 ac  
fasprintei@yahoo.es www.fasprinteibar.com





KILIKLIK

### Egun handirako jantziak

Bai ezkongaiantzat, bai lagunentzat, zeremonia-jantzietan espezializatutako boutiqueak ditugu Eibarren. Ezkontzetako gonbidatuak janzteko joerak dotorezia, berrikuntza eta ingurumenarekiko errespetua uztartzen dituzte. Jarraian, joera nagusietako batzuk dituzue:

- Kolore elektrikoak eta lurraren tonuak: Fuksia, esmeralda berdea eta urdin elektrikoak bezalako kolore biziak izango dira protagonista 2025eko eta 2026ko ezkontzetan. Tonu horiek freskotasuna eta modernotasuna ematen diete gonbidatuen konjuntuei. Bestalde, lurraren tonuek ere, txokolate marroiak bezala, arrakasta irabaziko dute, aukera sofistikatua eta moldakorra eskainiz.

- Gizonezkoen inspirazioa duten traje *oversize*ak: Erosotasunak eta dotoretasunak bat egiten dute ukitu maskulinoa duten jantzi oversizeen joerarekin. Forma zabaleko prakez eta jaka egituratuz osatutako multzo horiek aukera sofistikatua eta modernoa eskaintzen dute estilo desberdinarekin nabarmendu nahi duten gonbidatuentzat.

**Gerritek**  
INFORMATIKA

info@gerritek.net www.gerritek.net  
Txantxa-Zelai, 4-6. Tel. 943 03 38 92

**Marka guztietako zerbitzu  
teknikoa eta salmenta**

**Neurrira egindako  
software-aren garapena**

**KeraLa** JORGE DE LA GARZA

www.estetikakerala.es  
www.cosmeticadelbienestar.es

**Urkizu, 11** 943 53 05 25

**Makillajea Etxean Bertan**

Estetika Tratamenduak, Manikura, Depilazioak,  
Emaztegiendako BONO BEREZIA...

**umea** Errebal, 16

943 203 164

**IE** **IBONE**  
**ESTETIKA**

Tel. 943 20 16 01 Romualdo Galdos, 10 - b



KILIKLIK

- *Cut-out* xehetasunak dituzten soinekoak: Irekidura estrategikoak dituzten soinekoak, "cut-outs" izenekoak, gonbidatuen artean aukeratuko dira, dotoreziari eutsiz, janzkerari ukitu ausarta eta garaikidea gehitu nahi diotenen artean.

- Estilo greko modernoak: Antzinako jainkosa greziarren inspirazioa drapeatuak eta zeta bezalako oihalarinak dituzten soineko luzeetan islatzen da. Estilo horrek aire etereo eta sofistikatua ematen du, ezin hobea aire zabaleko edo ingurune naturaleko ezkontzetarako.

- Osagarri minimalistak eta orrazkera naturalak: Konjunto horiek osatzeko, osagarri sinple baina

dotoreak aukeratzen dira, hala nola eskuko poltsa egituratuak eta urre edo zilarrezko bitxi minimalistak. Orrazkerari dagokienez, uhin leunak eta bilduak izango dira aukera gogokoena, gonbidatuen look-ari ukitu fresko eta naturala emanez.

### **Emaztegaiantzako jantzien joerak**

Alde batetik, silueta modernoak eta moldakorrak ikusiko dira. Lerro garbi eta minimalistekin jantziak, baina ustekabeko xehetasunekin, hala nola hantetako irekidurak edo bizkar eskotatuak. Bestetik, soineko desmuntagarriak egongo dira; kentzen diren

**ROCA**  
CALBETON, 16 TEL. 943 20 80 06  
-FIBAR-  
**Ezkontza eta egun berezietan ZUREKIN!!**





KILIKLIK

gonadun modeloak edo zeremoniatik festara look-a eraldatzen duten geruzak. Beste tendentzia bat luxuzko xehetasunak eta egitura berritzaileak izango dira. Mikatua, organza eta satina bezalako oihalak, akabera distiratsuekin edo perla-efektuarekin. Perlak eta harribitxi delikatuak mahuketan, eskoteetan edo ukitu glamuroso baterako gerrikoetan. Kolore-ukituak eta lore-brodatuak ere nagusituko dira.

Mahuka deigarriekin jarraituko dugu. Estilo erromantiko eta vintage baterako mahuka korapilatuak, kanpandunak edo parpailazkoak.

Soineko laburrak edo prakak dituztenak ikusiko dira. Perfektuak ezkontza zibiletarako edo festetarako.

### Eta senargaientzako zer?

Kolore ausartak eta arruntetik kanpokoak eramanango dira. Beltz edo itsas urdin klasikoaz gain, kolore berde botila, bordele, marroi kakaoo eta gris perla nabarmentzen dira. Jantzi pastelak eguneko ezkontzetarako edo kanpoaldeetarako.

Ehundura eta akabera mateak dituzten ehunak eramango dituzte senargaiek. Belusezko, artile arinezko edo tweedezko jantziak, ukitu sofistikatu baterako. Akabera mateak, ohiko distira satinatuen ordez. Bestalde, ebaketa estua baina eroso nagusituko da, gorputzera gehiegi doitu gabe egokitzen direnak. Eta jaka gurutzatuak edo moko-hegalak dituztenak, look formalago baterako.

San Agustin, 3   943 20 41 81

# Kopina

*Momentu berezietarako*  
**BILDUMA BERRIA**



Hotela: 943 121 272  
Jatetxea: 943 701 292

Mandiola Balle 8, Eibar  
[www.ixuahotela.com](http://www.ixuahotela.com)

943 20 17 33  
[eibarbus@eibarbus.com](mailto:eibarbus@eibarbus.com)  
[www.eibarbus.com](http://www.eibarbus.com)

*Botidantik esku onetan!*

Isasi, 20 

*Eibarbus*

# Lakett

estetika & masaje

Prestatu zure aurpegi eta gorputzeko azala egun berezi hauetarako

*Edertasunon adituak*

Zezen bide,4 Tel. 943 530066 [www.lakett.com](http://www.lakett.com)





### Eztei-bidaiarako ideiak

Askok hondartza paradisiakoak aukeratzen dituzte: Maldibak (ur kristalinoak eta bungalowak ur gainean dituela, ametsetako lekua da bikote askorentzat); Bora Bora (berezko edertasunagatik eta luxuagatik da eza-guna, eta ideala lasaitasuna nahi dutenentzat); Cancún eta Riviera Maya (hondartza ederren, kulturaren eta jardueren nahasketa eskaintzen dute).


Beste batzuei natura eta abentura uztartzea gustatzen zaie, eta horretarako oso aproposak dira Costa Rica, Islandia eta Zeelanda Berria.

Kulturarekin zerikusia duten bidaiak nahi dituztenentzako, hor daude Japonia (tradizioaren eta modernitatearen arteko nahasketa); Thailandia (bere kultura aberatsarekin, tenplu ikusgarriekin eta hondartzekin) edo Italia (Toskanatik Amalfiko kostalderaino, Italia bere janari, ardo eta paisaia erromantikoengatik da ezaguna).

Luxuzko esperientziak bizitzeko Dubai, Santorini edo Malaysia bezalako helmuga turistikoko paregabeak daude.



KILIKLIK



KILIKLIK

### Une bakoitza gogoratzeko argazkia eta bideoa

Halako egun bereziak betirako gordetzeko hauek dira hurrengo hilabeteetarako tendentziak:

- Dokumentu-estiloa edo "storytelling"-a: Eguneko historia kontatzen duten argazki espontaneoak eta naturalak lehenesten dira. Jarrera tradizional gutxiago eta benetako une gehiago (barreak, malkoak, keinu txikiak).

- Film analogikoko argazkigintza: Itzuli da kamera analogikoen xarma, ukitu vintage eta nostalgikoa duten irudiak atzemateko. Askok estilo hau argazki digitaletan konbinatzen dute album anitzago baterako.

- "Kameren atzean" argazkiak: Prestaketan argazkiak, zeremoniaren aurreko urduritasuna eta unerik intimoenak. Gonbidatuen erreakzioetan eta normalean oharkabean pasatzen diren xehetasunetan fokatzea.

- Sormenezko "Pre eta Post-Boda" saioak: Aurre ezkontza zuen nortasuna islatzen duten leku berezietan (hondartza, mendia, hiria). Ezkontza osteko lasaiagoa da, eta egun handiko presiorik gabe hartualdi epikoak harrapatzeko aukera ematen du.

- Aireko argazkia droneekin: Tokiko, aire zabaleko zeremoniako edo une garrantzitsuenetako panoramika ikusgarriak harrapatzen ditu. Ezin hobea ingurune naturaletako edo espazio handietako ezkontzetarako.



# BELAUSTEGI

— BASERRIA —

ZURE EZKONTZA  
ZURE NEURRIRA!



SAN MIGEL GAINA, 44 . 20870 ELGOIBAR



943 74 31 02

WWW.BELAUSTEGI.COM



**Edertasuna eta ongizatea**

Egun handian funtsezkoa da eder agertzea. Eibarko edertasun aretoek eta ile-apaindegiek makillaje, orrazkera eta edertasun tratamenduak eskaintzen dituzte. Pakete bereziak ere badituzte, look bikaina ziurtatuz.


2025ean eta 2026an ezkontzetarako ile-apainketako joerek naturaltasun, sofistikazio eta ukitu modernoaren konbinazio harmoniatsua islatzen dute. Jarraian, ezkontza-orrazkeretan jarraibidea markatuko duten joera nagusiak dituzue (emaztegaiantzako eta gonbidatuentzako balio dute):

- Orazkera solteak uhin leunekin: Uhin arinak eta egitura naturalak dituzten melena solteak hautu kuttuna izaten jarraituko dute estilo erlaxatu eta erromantikoa bilatzen dutenentzat.

- Motots baxuak eta leunduak: Bildu baxu eta dotoreek, akabera leunduekin, sofistikazio ukitua ematen dute, eta estilo modernoa bilatzen dutenentzat ezin hobeak dira.

- "Wet look" efektua: Ile hezearen edo "wet look" efektuak ospea hartzen jarraitzen du estilo garaikide eta dotorea bilatzen dutenen artean.

- Txirikorda edo trentza modernoak: Txirikordek protagonista izaten jarraituko dute, eta bertsiio modernoago eta sofistikatuagoetan ikusiko ditugu.



KILIKLIK

**CAPI** Bidebarrieta, 5 943 201 547  
[www.capiestetica.es](http://www.capiestetica.es)

**AURPEGI TRATAMENDUAK**

Azalaren diagnostiko zehatza  
 Skin-touch

**GORPUTZ TRATAMENDUAK**

Gorputzaren birmoldaketarako behin-betiko konponbidea:

- IZTERRAK
- IPUR-MASAILAK
- BESOAK
- SABELALDEA

- MANIKURAK
- PEDIKURAK
- BETILE LUZAPENAK
- LIFTING

Untzaga plaza, 8  
 943 20 76 21

**ANSA**  
 BITXIDENDA

Zein dotore!





KILIKLIK

*Izadi*

**LORA DENDA**

San Juan, 1  
Tel. 943 20 33 29

*Enkarguak  
etxera*

**Aliantza bereziak**

Ezkontzako aliantzak sinbolo bereziak dira. Zer bait bereziren bila bazabiltzate, hemen dituzue joera batzuk:

1. Diseinu pertsonalizatuak: Bikote askok beren historia edo gustuak islatuko dituzten aliantza bakarrak sortzea aukeratzen dute. Grabatu esanguratsuak sar ditzakezue, hala nola data berezi bat edo biek maite duzuen esaldi bat.

2. Material alternatiboak: Ohiko metal preziatuen ordez, bikote batzuk titanioa, tungstenoa edo egurra bezalako materialak aukeratzen ari dira. Material horiek ukitu desberdina eta modernoa eman dezakete.

3. Harribitxiekin egindako aliantzak: Diamante klasiko baten ordez, har itzazue beste harri batzuk, hala nola zafiroak, esmeraldak edo baita zuentzat esanahi berezia duten koloretako harriak ere.

4. Diseinu asimetrikoak: Forma ez-konbentzionalak edo asimetrikoak dituzten aliantzak ere modan daude. Erosoagoak izan daitezke eta estilo paregabean eskaini dezakete.

5. Bikote-aliantzak: Bikote batzuek elkarren osagarri diren aliantzak aukeratzen dituzte, elkarrekin eramatean batzen diren diseinuaren bi erdi gisa.



*Ikutu Bat*

**Manikura eta Pedikura**

**Eibar, Isasi 23**

**614 200 612**

**YOKASTA**

*Yokasta Nails Spa*

**manikura-aretoa**

Calbeton, 22-24 Tel. 603 344 258

**MANIKURA 5 €tik hasita**

**PEDIKURA 10 €tik hasita**

Zure azazkalak...  
...zure espresibidea

## Lehenengo jaunartze egunerako kontuan hartzekoak

- Ospakizun pertsonalizatuak: Gero eta familia gehiagok aukeratzen dute haurren nortasuna eta interesak islatzen dituzten ospakizunak egitea. Horrek barne hartzen ditu dekorazio tematikoak eta gustuko dituzten jarduerak.

- Jasangarritasuna: Gero eta interes handiagoa dago ospakizun ekologikoagoak egiteko, dekorazio birziklatuak, gonbidapen digitalak eta aukera lokal eta organikoak dituen cateringa erabiliz.

- Esperientziak opariren ordeztuak: Familia askok aukeratzen dute esperientziak oparitzea, hala nola bidaiak edo jarduerak, objektu materialen ordeztuak. Jolas-parkeetarako sarreretatik hasi eta gustuko duten zerbaiten klaseetara arte sar daiteke.

- Zeremonia intimoak: Ospakizun txikiagoetarako eta esanguratsuenetarako joera hazi egin da, familia eta gertuko lagunaren ikuspegitik, topaketa handien ordeztuak.

- Teknologia: Teknologia sartzea, bertaratu ezin diren zuzeneko transmisio gisa, eta une bereziak partekatzeke sare sozialak erabiltzea ere ohiko bihurtu da.

- Jateko kreatiboa: Catering-aukerak eboluzionatzen ari dira, askotariko menu kreatiboekin, janari-postuak, postre pertsonalizatuak eta gustu guztietarako aukerak barne.

- Jaunartzea egiten duten haurrentzat argazki-album bat egiteko ohiturak oso indarrean jarraitzen du. Familia askok gozatzen dute une berezi horiek harrapatzen eta denboran iraungo duen oroitzapen bat sortzen. Haurren bizitzako mugari hori ospatzeko modu polita da.

- Jaunartzeetan, ohikoa da esanguratsuen diren bi-txiak oparitzea, haurrek urteetan zehar gorde dituzten. Zilarrezko edo urrezko eskumuturrekoak aukera klasikoa dira. Sinpleak izan daitezke edo zerbait berezia ordezkatzeko duen apaingarri bat izan dezakete. Lepokoak ere sarritan oparitzen dira. Esanahi berezia duen zintzilikario batekin, oso opari polita izan daiteke. Neskentzat, urrezko edo zilarrezko belarritakoak, diseinu delikatuarekin, opari xarmagarriak izan daitezke.



KILIKLIK

kili\_klik 

kili klik

argazkilaritza fotografia

[www.kiliklik.eus](http://www.kiliklik.eus)

646114443 • [kilimaksortzen@gmail.com](mailto:kilimaksortzen@gmail.com)  
Indalecio Ojanguren 1 behea



Goizeko sei eta erdiak ziren, 1931ko apirilaren 14a, martitzena, Eibarko udaletxeko balkoian Mateo Kareagak hiru koloreko bandera altxatu eta Bigarren Errepublikara aldarrikatu zenean. EIBARKO UDALARTXIBOA.

Aitak jarri zuen estatu guztiko lehen bandera errepublikanoa. Ez zitzaion esatea gustatzen, beldurratik. Gerora kontatu zionez, epaiketa orduan epaileek jakin izan balute, fusilatu egingo ei zuten.

## Aitak ipini zuen errepublikako lehen bandera

**Jose Kareaga Guridi**  
(1930 – 2008)



Eibarren jaio zen 1930. urtean Errebal kalean; gurasoak ere eibartarrak zituen. Aita grabatzailea zuen, Mateo Kareaga, Errepublika garaian Eibarko udaletxean zinegotzi izandakoa (errepublikazalea). Aitita ere grabatzaile eta damaskinatzaile ezaguna izan zen, Kaietano Kareaga. Jose bera ere gazterik hasi zen marrazkigintzan eta grabatzaile lanetan. Margolaria ere izan zen.

### Jose Kareagari grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

[Eta, gaiñera, republikako banderia ez zeban Mateo berak ipini edo zelan zan historixia?] Bueno, hau geure artian, e? Hara, neuk esango deuat. Batak ipini ebala ta bestiak ipini ebala ta... gure aittari ez jakuan /etxakuan/ gustatzen hori esaterik be. Itxuria oindiok karzelatik urten ta gerora be bildurra ekan, zegaittik eze berak ipini juan. Ta zelan ipini eban? Ba, alkate txikixak, Alejandro Telleriak esan ei jetsan: “Hara, Mateo, heu haiz bai konzejalik gaztena ta heuk ipini bihar dok banderia”. “Bueno, bueno”. Ta esaten eban gure aittak... Behin kontau estan, e, taillarretik etxera goiazela hara. Edo behin edo birritan gehixao ez. “Hara, banajekan bildur bat...!” Akusaziñuak, hamen denunziak eta Eibartik eta jentia... beti egoten dok. (...) Baiña hori juiziuori ein etsenian, iñori ez jakuan akordau hori denunziori sartzia, zeaittik esaten eban gure aittak: “Bateonbateri akordau bajakuan denunziazia Mateo Kareagak ipini ebala bandera republikanua Espaiñian lehelena... afusilauko najinduen, baiña gehixao pentsau barik. Eztakik?” (...).





## Carla Andresek kontratua berri du SD Eibar-ekin

Aranda de Duero atzelariak dagoeneko hiru denboraldi egin ditu talde armaginean eta beste birako berri du kontratua SD Eibar-ekin, 2027ko ekainera arte. Carla Andres Eibarko taldea RFEF 1. mailan zegoela iritsi zen, eta 1. Mailara igotzeko jokalarri garrantzitsua izan zen, eta horrela jarraitzen du izaten ordutik hona. Racing Feminas taldeak etorritakoak dagoeneko 75 partidu ofizial jokatu ditu Eibar-ekin, lan defentsibo bikaina eginez, eta Yerai Martinen taldearen zutabe garrantzitsu bihurtu da.



Lombraña eta Osa eibartarrak juezaren ezkerrean, gorritz jantzita.

## Herriko palistak Udaberriko eta Gipuzkoako txapelketetako finalerdietara iritsi dira

Gaur Gipuzkoako goma paleta banakako txapelketako finalerdietako partidua jokatu da Astelenan, Antxon Gisasola eibartarraren parte-hartzearekin; Tolosako Zubiria izango du aurkari 20:00etan hasiko den norgehiagokan. Dena dela, jaialdia beteagoa egiteko Deporrek pilota batzordekoek beste hiru pilota partidu antolatu dituzte, Astelenako ateak 17:45ean zabaltzeko. Lehendabizi bejaminen txanda izango da, Jauregi-Zuazua eta Urain-Jimenez bikoteekin. Eta jarraian lau eta erdiko kaiolaren barruan Seguroiak

eta Del Reyk neurtuko dituzte indarrak, eta ondoren Amuategik eta Varonak.

Lombraña eta Osa gure herriko palistak ere finalerdietara iritsi ziren, horiek Udaberri binakako torneoan, baina aurreko asteburuan jokatuako partiduan amore eman behar izan zuten (17-25) Lagunakoko bikotearen aurrean. Eta, palarekin jarraituz, Eibarko V. Pala Txapelketiaren bosgarren jardunaldia jokatu da bihar eta etzi: bihar, 09:00etan hasita, lau partidu; eta etzi bosgarrena, 10:30etik aurrera.



Hegoi Estebanek gidatzen duen Kalamua klubeko judokak badoaz emaitzak lortzen.

## Kalamuak ordezkari bi izango ditu Euskadiko eskolarteko txapelketan

Azken asteburuan Urnietako kiroldegian jokatuako infantil eta kadete mailetako Gipuzkoako txapelketaren hirugarren eta azken fasearen ondoren, Julen Martin eta Aner Gonzalez apirilaren 5ean Gasteizko Arriaga kiroldegian jokatu diren Euskadiko Eskolartekoen Jokoaerako sailkatu dira. Julen Martin 60 kilora arteko mailan azpitxapeldun geratu zen, azken jardunaldiko hiru borrokak irabazita; Aner Gonzalezek, bes-

talde, brontzeko domina irabazi zuen 50 kilotik beherakoen mailan, azken fase horretan bost borroketatik lau irabazita. June Valladares, Sara Azpiazu eta Ekhi Carballo ez dute Euskadikorako sailkatzerik lortu eta gogor jarraitu beharko dute lan egiten hurrengo denboraldian, dagoeneko kadete mailan, aurrera egiteko. Kadeteetan Jokin Larreina izan zen Kalamuako ordezkari bakarra, Doha Shrir taldeakidea bajarekin dago eta.

## Geratu barik eta emaitza bikainak eskuratzen dihardute Ipuruako gimnastek

Ipuruako amateurrek eta eskolarrek nota onarekin gainditu dituzte Gipuzkoako Federazioak antolatutako kanporaketa faseak. Aurreko asteburuan Donostian jokaturako eskola mailako bigarren fasean, eibartarrek lau talde alebin eta infantil bat sailkatu dituzte finalerako, baita banakako modalitateko bi gimnasta eta taldekako banakakoan parte hartuko duten 10 gimnasta ere. Horiek guztiak maiatzaren 10ean Irunen jokaturako diren Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketan lehiatuko dute. Aurreko asteburuan Ibarren jokaturako amateurren bigarren fasean ere, banakako modalitatean parte hartu zuten hiru taldek eta 13 gimnastek, guztiak txartela lortu zuten maiatzaren 17an hemen, Eibarren, jokaturako den finalerako.

Bestalde, kadete mailako Oinarrizko taldeak Marbellako Grand Prix nazioarteko txapelketan hartu zuen parte. Estatu mailako Koparako prestaketa fasean



Marbellako Grand Prixean hartu zuten parte kadete mailakoek.

daude, sailkapen kontrola gainditu ondoren, eta klubeko federatu gazteenentzat esperientzia aberasgarria izan zen, txapelketa horrek maila handiko gimnastak biltzen dituelako.

Azkenik, bihar eta etzi Nahia eta Haizeder Arguiz, Naroa Alonso, Arrate Bascaran eta Ane San Martín gimnastek bihar Azkoitian jokaturako den Gipuzkoako banakako txapelketan hartuko dute parte, eta domekan Castro Urdialeseko torneora joango dira.

## Eibarko PROFESIO LIBERALAK



### ABOKATUAK

#### CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.  
Tel. 943 12 80 55  
www.cristinabaz.com  
cristinabaz@icagi.net

#### MARTA VALERA ECHALUCE

Fermin Calbeton 4-3, 3 D lokala  
Tel. 659 38 33 19 - 943 20 05 70  
abogada@martavalera.es

### AHOLKULARITZAK

#### GAURVE

Fermin Calbeton 13-15  
Tel. 943 20 24 61  
www.gaurve.es  
consultores@gaurve.es

#### GESTILAN

Zezenbide 4  
Tel. 943 20 70 02  
www.gestilan.es  
gestilan@gestilan.es

### ETXE ADMINISTRAZIOAK

#### CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.  
Tel. 943 12 80 55  
www.cristinabaz.com  
cristinabaz@icagi.net

Hemen zure lekua  
Informazioa: 943 20 09 18 (...eta kitto!)

## 40 lagun inguru bildu zituen Dominguezekin egindako Negutraillak

Klub Deportiboko Mendi Taldeak eta Kalamua Korrikalari Taldeak antolatutako Negutraillan bildu zen lagun taldeak goiz ederra pasatu zuen, aski ezaguna den Javier Dominguez Ledo ultra trail korrikalaria-rekin. Partaidetza handia izan zen (40 mendi korrikalari inguru) nahiz eta ibilbidean lokatza eta haize hotza lagun izan. Bestalde, euririk ez zuen egin eta, horrenbestez, A ibilbidea burutu ahal izan zuten (13,5 kilometroko ibilbidea, Akondia eta Urko tontorrek eginez). Ibilbidean zehar egindako hiru geldialdietan, partaideek entrenamendu, elikadura, lasterketa... eta hainbat gairi buruz egindako galderak erantzun zituen Javier Dominguezek, distantzia luzeko mendi lasterketetan bikain



Goian, Negutrailekoak Urko puntan. Behean, Aritxuluetako zelaitik jaisten Eibarrerantz.



moldatzeaz gain, jendearekin harremanean ere ezin hobeto moldatzen dela erakutsiz. Hurrengo trail

irteera hemendik gutxira izango da, maiatzeko Udaberri-trailaren aurtengo edizioan.

## JAZekoak Zuiako eta Lizarrako duatloietan izan ziren parte hartzen

Zapatuan, gainera, urteko duatloirik gogorrenetakoari aurre egin behar izateaz gain, klimatologiak oraindik gehiago baldintzatu zuen proba, 200 bat erretiraturarekin. Bai-



Iker Goikoetxea, JAZeko onena Zuian.

na Eibarko taldekoek ondo jakin izan zuten horri aurre egin eta parte hartu zuen laukoteak dotore amaitu zuen proba. Iker Goikoetxeak 03:40:59an amaitu zuen, 47. postuan; Alex Higuera, 03:44:18ko



Pablo Zabala podiumetik gertu geratu zen.

denborarekin, 57. tokian sailkatu zen; 172. postuan amaitu zuen Aitor Fernandezek lau ordutik gora behar izan zituen (04:14:23); eta 23 urtez azpiko mailan Euskadiko Txapelketako podiumera igo zuen Iñigo Gastonek 227. postuan amaitu zuen (04:32:45). Euskadiko Taldekako Txapelketaren sailkapenean, bederatzigarrena izan zen JAZ Eibarko taldea.

Domekan Lizarran jokaturako esprint distantziako duatloian parte hartu zuen Pablo Zabala, bestalde, garaipenaren lehian egon zen, azkenean laugarren postuarekin konformatu behar izan bazuen ere.



## Urkik sendo jarraitzen du Erregionaleko Gorengo mailako lidergoan

Lazkaon ere irabazita, eibartarrek bost puntuko aldea jarraitzen diote ateratzen Debako Amaiak Bat bigarren sailkatuari; kontuan izanda Urkikoek partidu bat gutxiago jokatuta dutela. Lazkaon 2-3 nagusitu zen Urki Alquideba, Jurgen Etxebe eta lazkaotarrek euren atean sartutako golei esker. Jokaturako 23

partiduetatik, Urkik 18 garaipen eskuratu ditu, bitan berdindu du eta bakarrik hiru porrot izan ditu. Bigarren taldeak, 1. Erregional mailakoak, 1-2 galdu zuen Bergararekin: Pelloren gola ez zen nahikoa izan. Horrela, Urki JMR bigarren geratzen da Kopa torneoan, Ikasberriekin jokatuta aurretik.



Urkik-JMR da klubaren helduen mailako bigarren taldea; Kopa dihardu jokatzen orain.

## Malape Tabernak dagoeneko bereganatu du futbol-zaletuaren Liga txapelketa

Futbol-zaletuen liga amaitzeko bi jardunaldi besterik falta ez direnean, Malape Tabernak edizio hau poltsikoratu du dagoeneko. Une honetan sei puntuko aldea ateratzen dio Garajes Garcia bigarren sailkatuari eta bederatzikoa Xania Taberna hirugarren sailkatuari. Garajes Garcia bigarren sailkatuak partidu bat gehiago jokatuta asteburu honetan atsedean hartu behar duenez, Malapek ziurtatu du Liga. Atzerago geratu dira Adahi Etxegi, Bar Marem, Limpieza Rueda eta Kalaka Buenos Aires, orden horretan baina bi puntuko tartean



sartuta laurak; beraz, hor aldaketak egon daitezke oraindik. Atzean geratu dira BOJ (hiru puntu kendu dizkiote partidura aurkeztu ez zelako) eta Baserri, azken hau partidu bakarra irabazita denboraldi guztiaz.

## ASTEBURUKO AGENDA

### FUTBOLA

#### Emakumezkoen 1. Maila

Levante - SD EIBAR (bihar, 12:00)

#### Gizonezkoen 2. Maila

Cadiz - SD EIBAR (etzidamu, 20:30)

#### Gizonezkoen 2. Maila RFEF

SD EIBAR B - Tudelano (etzi, 16:00)

#### Emakumezkoen 2. Maila RFEF

Huesca - SD EIBAR B (bihar, 18:30)

#### Gizonezkoen 3. Maila RFEF

Deusto - SD EIBAR C (bihar, 17:45)

#### Emakumezkoen Euskal Liga

SD EIBAR C - Mariño (etzi, 12:30)

#### Erregionaleko Gorengo Maila

URKI - Lagun Onak B (bihar, 18:00)

Amaiak Bat - EIBARTARRAK (bihar, 12:00)

#### Erregionaleko 1. Maila (Kopa)

Ikasberri B - URKI B (bihar, 17:30)

#### Ohorezko Jubenil Maila

Txantrea - SD EIBAR (etzi, 12:00)

#### Jubenilen Nazional Liga

SD EIBAR B - Athletic B (bihar, 15:30)

#### Jubenilen Euskal Liga

Antiguoko - URKI (etzi, 15:40)

#### Kadeteen Euskal Liga

SD EIBAR - Athletic (bihar, 12:30)

### FUTBOL-ZALETUA

- L. Rueda - Xania Taberna (bihar, 09:00)
- Bar Marem - Baserri (bihar, 10:30)
- Kalaka B. Aires - Adahi Etxegi (etzi, 09:00)
- Malape Taberna - BOJ (etzi, 10:30)

### ARETO-FUTBOLA

#### Gizonezkoen Gipuzkoako 3. Maila (Kopa)

EIBARTARRAK - Gamon-Auzi (bihar, 15:30)

### ESKUBALOIA

#### Emakumezkoen Zilarrezko Maila

Schar Zaragoza - MEK EIBAR (bihar, 19:00)

#### Gizonezkoen 1. Nazional Maila

Uhartea - MEK EIBAR (bihar, 20:00)

#### Emakumezkoen Euskadiko Liga

MEK EIBAR B - Kukullaga (etzi, 12:00)

#### Gizonezkoen Lurraldeko Liga

Hondarribia - MEK EIBAR B (bihar, 13:15)

### SASKIBALOIA

#### Gizonezkoen Gipuzkoako 2. Maila

ARTES. JUANTXO - Errobide (bihar, 14:00)

#### Emakumezkoen Gipuzkoako 2. Maila

EIBAR - Tecnun (etzi, 11:30)

#### Gizonezkoen Gipuzkoako 3. Maila

Modelos Modelberri - EIBAR B (etzi, 13:00)

### WATERPOLOA


#### Gizonezkoen 2. Maila Nazionala

URBAT - Godella (bihar, 18:30)

### XAKEA

#### Gipuzkoako 1. Maila (igoera fasea)

EIBAR A - Salto Bidasoa B (bihar, 16:00)



Koloreak. RAMONBEITIA





ASMAE OURDI EL ALAOU

## Tata Asma, hori ez da euskaraz!

Kontua ez da euskaraz hitz egin edo bizi nahi ez duela, edo euskaraz jardutea ez duela gustuko, ezta beste hizkuntza batzuk lehenesten dituela ere, orain arte euskaraz hitz egiteko aukera gutxi izan dituela baizik.

Esan gabe doa pertsona arrazializatuek (pertsona ez txuriak) dituzten euskaraz hitz egiteko ohiturekin lotutako aurreiritzi ugari existitzen direla; besteak beste, euskara menderatzen ez dutela, gai izango ote diren euskaraz hitz egiteko, ez diotela hizkuntzari behar bezain garrantzirik ematen edo euskara ikasi nahi ez dutela. Horren guztiaren ondorioz, nire ilobak, 5 urterekin, bere inguruan euskaraz aritzea zailegia dela ikasi du, gehienetan bere tankeragatik berarekin elkar trukatzan diren lehenengo hitzak gaztelaniaz direlako. Hortaz, umeak euskaraz bizitzeko izan beharko luketen konfiantza eta askatasuna murriztu eta mugatu egin dira euskaraz hitz egiteko dituen saiakerekin batera. Nirekin arnasmune bat topatu du, non epaitua sentitu gabe euskara erabiltzeko ausardia eta askatasuna duen.

Zoritzarrez, aurreko lerroetan aipatutakoa ez da kasu puntuala edo soilik umeekin gertatzen den kontua; nire bizitza osoan zehar nik jasan behar izan ditut mota horietako egoerak, alegia, nire itxuragatik gaztelaraz hitz egiten didate “¡Ah! ¿Sabes euskera?” niregana euskaraz zuzentzeko aldarrikapena egin arren, behin eta berriro.

Mota horietako esperientziak errealitatea pentsatzen duguna baino gordinagoa dela agerian uzten dute: batetik, jarrera edo pentsaera kolonial eta arrazistak barneratuta ditugulako eta, bestetik, erasotua sentitu gabe egoera horiek gertatzen direla onartzeko gai ez garelako. Izan ere, txuria ez den gorputz baten parean gaudela, era indibidualean zein kolektiboan normalizatuta dauzkagun arau sozialen mekanismoak martxan jartzen ditugu. Beraz, estereotipo arrazistak oinarri izanik, pertsona arrazializatuak ezaugarri eta jokamolde txarrekin lotzen ditugu, hain zuzen ere gertatzen ari den hizkuntza bazterkeriaren erakusgarri.

Adibide gisa, gaur egun eskola publikoetan gertatzen ari den egoera aipatu nahiko nuke, non aurreiritziak eta estigmak direla eta, aniztasuna mehatxutzat hartu eta kalitate gabeko hezkuntzarekin zuzen-zuzenean lotzen den. Ondorioz, arrazializatutako haurtzaroak bereizkerian oinarritutako tratua jasotzen du eta baztertua izan ohi da.

Gauzak horrela, arrazializatu den pertsona oroekin kontaktua izaten denean gauza bera gertatzen da; ez du axola ume, nerabe, unibertsitateko ikasle edo lan munduko profesionalen aritzen garen. Izan ere, euskaratik gaztelaniara hizkuntza aldaketa automatikoa egiten da, pertsona horrek euskaraz hitz egiteko duen eskubidearen aldarria egin arren.

Edozein modutan ere, xedea ez da errudunak izendatzea: kontua da harremanetan jartzean euskararen erabilpenarekiko dugun eskubideaz edozein baliatu ahal izatea. Argi dago zein hizkuntzatan komunikatzen garen guk geuk erabakitzen dugula, baina aintzat hartu behar ditugu beste kolektibo batzuetako pertsonak, arrazializatuak, migratuak, ijitoak... guztia baikara mundu zoro honen partaide.

**“Arrazializatu den pertsona oroekin kontaktua izaten denean gauza bera gertatzen da: euskaratik gaztelaniara hizkuntza aldaketa automatikoa egiten da”**



# Autismoaren inguruko mitoak hausteko solasaldia eskainiko dute domekan

Gizartean ezjakintasun nabaria dago autismoaren gainean eta horrelako kontuak entzun behar dituzte autismoaren nahasmendua dutenek eta euren gurasoek. Apirilaren 2a Autismoaz Kontzientziazteko Munduko Eguna izango da eta, hori aprobetxatuz, domekan, goizeko 11:00etan, autismoaren inguruko mitoak hausteko solasaldia eskainiko dute Ipuruako Merkatu Plazan.



BIDEOA



**G**autena autismoaren espektroko nahasmendua duten pertsonen familien elkarteak 1978az geroztik dihardu lanean. Autismoa dutenei eta euren familiei zerbitzua eskaintzen diete, baina era berean garrantzitsua da gizarteak autismoa zer den ondo ulertzea, izan ditzakeen estigmak uxatzeko. Gautenak Eibarren du egoitzetako bat, Argatxako Jardinetan, eta bertan elkartu gara Jara Larreategi elkarteko psikologoarekin eta autismoa duten haurren lau amarekin, eurak izan baitira domekako solasaldiaren sustatzaileak.

Autismoaren gaia gizarteratzeari garrantzia ematen diote eta, domekan egingo den ekintza bezala, aurreko urteetan ere egin dituzte bestelako saioak. “Iaz, Coliseo antzokian, Debarreneneko gurasoek zuzenduta, autismoaren espektroko nahasmenduak euren familietan

nolako inpaktua izan duen azaldu genuen”, esan digu Larreategik, “eta oso hunkigarria izan zen”.

Gautenan guraso taldeak sortzen dituztenean behar ezberdinak agertzen dira, eta familia baten bi-zipena honelakoa izan zen: “Euren semearen diagnostikoaren inguruko aurreiritzi batzuk suertatu ziren umeen artean, eta pentsatu genuen garrantzitsua zela horren inguruan berba egitea eta mito batzuk haustea. Izan ere, autismoaren inguruan mito eta aurreiritzi asko dago, eta bai familiek bai Gautenak gauza batzuk azaleratu behar ditugu”, azaldu digu psikologoak.

Autismoaren inguruko mito eta usteak argitze aldera, ikasteko eta galdetzeko gune atsegina sortu nahi izan dute Gautenako gurasoek. Gainera, egoitza Ipuruan egonik, Ipuruako Merkatu Plaza aukeratu dute solasaldia egiteko, gertuko eta konfiantzazko zerbait izatea nahi



Gautenak eta autismoaren espektroko nahasmendua duten umeen gurasoek antolatuta dute domeka goizeko solasaldia Ipuruako Merkatu Plazan. EKHI BELAR

dutelako. “Kafea hartzen egongo bagina bezala izatea nahi dugu, eta jendeak buruan eduki ditzakeen galderak, aurreiritziak eta zalantzak erantzutea eta argitzea da gure asmoa”, esan digute. “Jendea etortzeko animatu nahi dugu eta inongo beldurrik gabe galderak egitea”. Izan ere, ulertzen dute batzuek autismoaren inguruan ezjakintasuna edo galderak edukitzea eta, era berean, badakite jendeari batzuetan erreparoa ematen die-la gaiaren inguruan eurei galdezea ere.

### Mito nagusiak

Asko dira autismoa duten haurren lau ama hauek entzun behar izan dituzten mitoak eta berehala izendatu dizkigute: bakarrik egotea gustatzen zaiela, ia inorekin ez dutela berbarik egiten, gaixotasuna dela, sendatu daitekeela, bakunen eraginez sortzen dela, ezaugarri fi-

## Ipuruako Merkatu Plazan egingo duten ekintzan autismoaren inguruko zalantzak eta galderak argitu nahi dituzte

## Autismoaren espektroko nahasmenduaren inguruan ezjakintasun handia dagoela nabari dute gurasoek

siko jakinak dituztela, ezin dutela lanik egin, ezin dutela bizitza normal bat egin, oso adimentsuak direla... “Orain autismoa gure egunerokoan dago eta gaiaren inguruan asko informatu gara; baina, zure inguruan inork ez badu autismorik, normala da informazio handirik ez edukitzea”, euren ustez.

Larreategik azaldu digun bezala, “orain arteko paradigma zen autismoa dutenek behar handiak dituztela, komunikazio zailtasun oso handiak, adimen urritasuna dutela... Baina gaur egun horregatik esaten zaio autismoaren espektroko nahastea, espektro horretan kolore asko dagoelako eta kolore horietan pertsona pila bat. Horrek esan nahi du bakoitza den modukoa dela: batzuk gaitasun batzuekin, beste batzuk beste gaitasun batzuekin, baina denak direla ezberdinak. Beraz, ezin ditugu guztiak kuxatila berdinetan sartu, behar

## Apirilaren 2a Autismoaz Kontzientziatzeko Munduko Eguna izango da, eta 6an 'Urdinduz eguna' egingo dute Tolosan



eta interes berdinetara mugatuta, klitxe berdinekin”.

Psikologoak azaldu bezala, autismoa ez da berdin ematen pertsona guztiengan, baina hasieran kontsultara etortzen diren familien beldurrak uste horietan oinarritzen dira. “Nik ez dakit etorkizunean pertsona horrekin zer gertatuko den; baina, batzuek behar handiak izango dituzten bitartean, beste batzuek beste ibilbide bat egingo dute”, diosku.

Azpimarratu nahi duen beste kontu bat emakumeen infradiagnostikoa da. “Emakume askok adin helduan jaso dute diagnostikoa. Bizitza ‘arruntasunean’ garatu ahal izan dute, baina horren atzean gelditzen dira nolako zailtasun sozialak izan dituzten, lagunarteko harremanetan nolako trabak aurkitu dituzten... 30-40 urterekin autismoaren diagnostikoa jaso dute. Pertsona horiek oso gutxietsiak daude zentzu horretan, autismoak euren

Autismoaren inguruko mitoak hausten saiaturko dira domekan Ipuruako Merkatu Plazan egingo duten ekitaldian.

bizitzengan duen inpaktua ez delako bi begirekin ikusten”, argitu digu Larreategik.

### Urdinduz eguna, Tolosan

Gautenak ‘Urdinduz eguna’ antolatu ohi du urtero, 2014az geroztik. Donostian egin ohi da, baina bi urtetik behin Gautenak egoitza duen herri batek hartzen du autismoaren aldeko ibilaldi solidarioa. Horrela, 2019an Eibarren egin zen eta aurrean Tolosari egokitzen zaio.

Hilaren 6an egingo da aurrengo ‘Urdinduz eguna’ eta, 11:30etik aurrera, ibilaldiaz gain, beste hainbat ekintza egingo dira: puzgarriak jarriko dituzte, buruhandiak eta erraldoiak egongo dira, baita jatekoa eta edatekoa ere, photocall-a... Egun handia izaten da autismoaren espektroko nahasmendua duten pertsonentzat eta familientzat, baina edonork hartu dezake parte bertan eta denok gaude gure bihotzak urdintzera gonbidatuta.



# XLVIII. ANTZERKI JARDUNALDIAK



**martxoak 28 (barixakua)**



**“Filtro”**

Sala Verdi eta La Dramática Errante  
ANTZERKI DOKUMENTALA / 75'

**Antzezleak:** MARCOS VALLS, LUIS PAZOS,  
AGUSTIN URRUTIA, CAMILA PARARD  
**Zuzendaria:** MARIA GOIRICELAYA

Antzezanak 1994an Montevideon gertatutakoa du oinarri. ETAko kide izateaz akusatutako esukal heritarren estradizioak manifestazio jendetsua eta polizia-zapalketa bortitza eragin zituen, Filtro Ospitaleko Gertakariak izenez ezaguna. Asilo politikoaz eta nazioarteko elkartasunaz gogoeta egiten du.

**Coliseo (19:00)**

**martxoak 29 (zapatua)**



**“Nuevo material”**

Angel Martin (Madril)  
MONOLOGOA / 75'

**Antzele eta zuzendaria:** ANGEL MARTIN

Ikuskizun berri honetan egileak bizitza modernoaren kaosa eta absurdoa esploratzera gonbidatzen gaitu, bere zorroztasun eta umore garratzarekin. Pasadizo pertsonalekin lagundutako bakarriketan, barre-algara eragiteaz gain, bizi garen munduari buruz hausnartzera gonbidatzen gaitu. Zeharkaldi komiko horretan, umore adimentsu eta probokatzailiaz baliatzen da komediante talentuduna.

**Coliseo (19:00)**

**martxoak 30 (domeka)**



**“La maldad, o los raticos...”**

Lagartolagarto - Zazurca (Aragoi)

KOMEDIA MUSIKALA / 75'

**Antzezleak:** ENCARNI CORRALES, ELENA GOMEZ,  
MANUEL LOPEZ, LAURA TORRIJOS

**Zuzendaria:** ALFONSO PALOMARES

“La maldad, o los raticos oscuros de Shakespeare” da lanaren izenburu osoa. Komediaren aterpean, sei lagun ikusiko ditugu abestu, dantzatu eta bardo ingelesaren eszenak interpretatuz esperientzia pertsonalak kontatzen. Zer egin behar duten hor? Gaiztakeriaz hitz egin, infernua egon edo ez.

**Uni-Eibar (19:00)**

**apirilak 2 (eguztena)**



**“Los lunes al sol”**

GG Prod. Escénica y Teatro del Nómada

TRAGIKOMEDIA / 105'

**Antzezleak:** YUNE NOGUEIRAS, J. LUIS TORRIJO,  
MARCIAL ALVAREZ, FERNANDO CAYO

**Zuzendaria:** JAVIER HERNANDEZ-SIMON

Film ahaztezinaren antzerki-egokitzapena da, gure gizartearen desberdintasunei buruzko gogoeta. Modu errealista eta hunkigarrian erakusten dizkigu lan-merkatu lehiakor eta aldakor batean lana aurkitzen saiatzen garenean bizi izaten ditugun eguneroko borrokak, frustrazioa eta etsipena.

**Coliseo (19:00)**



## ‘Awesome’ birako lehen kontzertua emango du bihar The Vartools taldeak Zaizoin

‘Awesome’ diskoa kaleratu ondoren, diskoa aurkezteko birari ekingo dio The Vartools talde eibartarrak, eta estreineko kontzertua eurentzat bigarren etxean den Zaizoi tabernan emango dute, bihar 20:00etatik aurrera. Hainbat urte eta gero lan berria argitaratu du The Vartools-ek, eta taldekideak gogotsu daude diskoa jendaurrean aurkezteko.



## Itxura pertsonala hobetzen ikasteko saioa bete egin da

Datorren apirilaren 3an, eguena, Aitziber Badiola irudi-aholkulariak ...eta kitto!-n emango duen saiorako leku guztiak bete egin direla jakinarazi du euskara elkarteak. Dena dela, “hemendik aurrera izena ematen dutenak erreserbako zerrendan sartuko dira, eta lekuren bat libre geratuz gero, zerrenda horretatik egingo genuke tira”. Badiolak itxura pertsonalaren inguruko aholkuak eta tresnak eskainiko ditu *Illunabarrian* programaren barruan. 18:30ean hasiko da ikastaroa eta pare bat orduko iraupena aurreikusten zaio.



## Musika Bandak pieza klasikoak joko ditu domekan

Coliseoko denboraldiko azken-aurreko kontzertua emango du asteburu honetan Eibarko Musika Bandak. Andoni Vazquezen zuzendaritzapean arituko dira, domekan 12:30etik aurrera eta, aurreratu digutenez, pieza klasikoak joko dituzte: *Lekunberri* (Jose Franco), *Aires Vascos nº1* (Jose Franco), *En un mercado persa* (A. W. Ketelbey), *Armenian Rhapsody* (Johnnie Vinson) eta *Una noche en Granada* (Emilio Cebrián Ruiz). Sarrera doakoa izango da, baina gonbidapenak Kutxabank bitartez edo Coliseoko leihatilan eskuratu ahal izango dira. Domekakoa eta gero, Coliseon denboraldia ixteko beste emanaldi bat eskainiko dute eta, ondoren, kalean izango dira hurrengo emanaldiak, betiere eguraldiak laguntzen badu.



## Ikasturteari agur esan dio Barixakuak Jolasian-ek

Joan den barixakuan egin zen Urkizuko parkean Barixakuak Jolasian ekimeneko azkeneko saioa. ...eta kitto! Euskara Elkarteak jolasak antolatzen ditu herriko hainbat lekutan etxeko txikienentzat, aisialdia euskaraz eskaintzeko asmoarekin. Udazkenean itzuliko dira berriro jolasak herriko auzo desberdinetara.





## Eibarko Artisten Elkartearen erakusketa kolektiboa

Gaur 19:00etan inauguratuko dute Eibarko Artisten Elkarteak urteroko erakusketa, Portalean. Gaurtik hasita eta apirilaren 27ra bitartean, 50 bat bazkideren artelanak (ehun inguru) ikusteko aukera izango da, martitzenetik domekara, 18:30etik 20:00etara. Beste batzuetan bezala, oraingo honetan ere pintura izango da nagusi, baina marrazkiak, grabatuak, zeramikak, argazkiak, eskulturak eta egurrean egindako lanak ere erakutsiko dituzte.



## Maria Montessoriri buruzko bideo-forum feminista

Pagatxa elkartearen eskutik, *Emakumeen Istorioak* zikloko bideo-forum saioa egingo da martitzenean (apirilak 1), 18:00etatik 19:30era Andretxean. Shakti Olaizolak dinamizatuko du, eta Maria Montessoriren bizitza eta lana emango dituzte ezagutzera. Sarrera libre da. Maria Tecla Artemisia Montessori (1870-1952) italiarra pedagogoa, psikiatra humanista eta filosofoa izan zen, baita aktibista feminista, sufragista eta katoliko sutsua ere. 1896an, 26 urte zituela, Italian mediku izatera ailegatu ziren lehen emakumeetako bat bilakatu zen.



## Virginia Imazek helduentzat ipuinak kontatuko ditu

Helduentzako ipuin-kontaketa saioa hartuko du Juan San Martin Liburutegiak eguaztenean (apirilak 2), 19:00etatik aurrera. Virginia Imaz Quijera izango da *Solo cuando me río* izenburuko lanaren narratzailea, eta munduko hainbat lekutako ahozko tradizioko istorioak kontatuko ditu, “umorearen bidez kontzientzia piztea helburu dutenak. Barre egiteko, hunkitzeko, pentsatzeko...”. Saioa gaztelaraz izango da.

## Ikasteko gela gehiago zabalduko ditu Liburutegiak asteburuetan

Erabiltzaileen eskaerei erantzunez, Juan San Martin liburutegian ikasteko zenbait gune zabalduko dituzte asteburuetan: ikasgelaz gain, liburutegia itxita dagoen zapatu arratsaldeetan eta domeketan, Portaleko lehen solairuko bilera-gelak erabili ahalko dira ikasteko, “betiere instalazioak errespetatzen badira”. Liburutegia 10:00etatik 13:00etara zabalduko dute asteburuetan; eta ikasgela eta bilera-gelak, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

## Kontzertu hirukoitza Gaztetxean



Musikazaleentzat plan biribila antolatu dute Eibarko Gaztetxean gaurko: 18:30ean zabalduko dituzte ateak, eta 3 euroren truke Desgobierno (Kolonbia, punk), Makis 37 (Ermua, punk-rock) eta Cien Duros (Ermua, metal) taldeak zuzenean entzun ahalko dira. Eta 21:00etan afari autogestionatua egingo da.





**10**  
**DESBERDINTASUN**  
**DAUDE BI IRUDI**  
**HAUEN ARTEAN**



				8	2		
			9	4			7
	6	2	7			9	3
9	8						6
		4				3	
	3						2 8
2	3			7	6	9	
	5			6	9		
		9	5				

6	7	9	5	2	7	4	1
8	5	1	0	7	0	7	2
2	4	3	1	6	7	6	9
7	3	6	4	9	5	1	2
9	8	5	2	1	3	4	6
4	6	2	7	5	1	5	1
3	1	8	9	4	2	5	7
6	0	7	6	3	8	2	1

soluzioa

**S**  
**U**  
**D**  
**O**  
**K**  
**U**

soluzioa

6	3	7	8	2	4	9	1	5
5	1	8	7	9	3	4	6	2
4	9	2	0	6	1	7	3	8
2	5	3	6	4	9	8	7	1
9	4	1	2	8	7	6	5	3
8	7	6	1	3	5	2	4	9
7	6	9	3	5	8	1	2	4
1	6	5	4	7	2	3	9	8
3	2	4	9	1	6	5	8	7

		4			6		8	
1	8				2	3		
				5				4
8	7				5	2		
		3	6				7	1
4				6				
		8	7				6	2
	3		8			9		

# Martxoak 28 - Apirilak 3

## BARIXAKUA 28

### PAILAZOENDAKO SARRERAK

**16:30/19:00** Jaixak Herrixak Herrixandakok antolatuta apirilaren 12an Porrotx eta Marimototsek aurkeztuko duten "Ostirala iritsi da" ikuskizunerako sarreren salmenta (10 euro, esku-dirutan ordaindu beharko da). Untzaga plaza.

### HITZALDIA

**18:00/20:00** "Mitologia klasikoa", Miguel Arroitauregi. Doan. Ipuruako merkatu plaza.

### MUSIKA

**18:30** Desgobierno (Kolonbia, punk), Makis 37 (Ermua, punk-rock) eta Cien Duros (Ermua, metal) taldeen kontzertua. 3 euro.  
**21:00** Afari autogestionatua. Eibarko Gaztetxea.

### INAUGURAZIOA

**19:00** Eibarko Artisten Elkartearen erakusketa kolektiboa. Portalea (erakusketa aretoa).

### ANTZERKI

#### JARDUNALDIAK

**19:00** "Filtro" (Sala Verdi, Uruguay; La Dramatica Errante, Bizkaia). 12 euro (8,50 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

## ZAPATUA 29

### ESCAPE ROOM

**10:00/13:00** "Eibar Villa Armera", Eibarko Dendarien Elkarteak antolatutako ihes-gela. Taldeka, aurretik izena emanda). Iraupena: 45 minutu. Ibilbidea: herriko dendetan zehar, Untzaga hasita.

## ZAPATUKO IPUINA

**12:00** "Kalean otso etxean uso" (Patata Tropikala). Doan, aurretik izena emanda. Portalea (areto nagusia).

### TOPAKETA

**16:30/19:30** "Voces de mujeres", kulturen arteko topaketa, Merlin Medina Acostaren eskutik. Haurtzaindegi zerbitzua. Sarrera librea. Antolatzailea: Martxoaren 8ko lantaldea. Portalea.

### KIROLA FAMILIAN

**17:30/19:30** Ume eta gurasoentzat jolasteko gune irekia, HH-koentzat (2-5 urte). Ipurua kiroldedia.

### ANTZERKI JARDUNALDIAK

**19:00** "Nuevo material" (Angel Martin, Madril). 20 euro (14 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

### MUSIKA

**20:00** The Vartools taldearen kontzertua. Zai Zoi taberna.

## DOMEKA 30

### HITZALDIA

**11:00** "Autismoarekin bizitzen", Gautena elkartearen eskutik. Sarrera librea. Ipuruako merkatu plaza.

### MUSIKA

**12:30** Eibarko Musika Bandaren kontzertua. Doan. Coliseo.

### KIROLA FAMILIAN

**17:30/19:30** Ume eta gurasoentzat jolasteko gune irekia, HH-koentzat (2-5 urte). Ipurua kiroldedia.

## PATINAK IPURUAN

**17:45/19:45** Ipurua kiroldedia.

### ANTZERKI JARDUNALDIAK

**19:00** "La maldad, o los raticos oscuros de Shakespeare" (Lagarto-lagarto-Zazurca, Aragoi). 12 euro (8,50 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Uni Eibar (Hezkuntza Esparrua).

## MARTITZENA 1

### BIDEO-FORUMA

**18:00/19:30** Emakumeen Istorioak: Maria Montessori. Dinamizatzailea: Shakti Olaizolak. Pagatxak antolatuta. Sarrera librea. Andretxea.

## EGUAZTENA 2

### AGURTZEN

**18:00/20:00** Aurretiazko borondateei buruzko informazio-zerbitzua, lkasten-en eskutik. Untzaga gizarte etxea (Arrate aretoa).

### ANTZERKI JARDUNALDIAK

**19:00** "Los lunes al sol" (GG Produccion Escenica eta Teatro del Nomada, Madril). 15 euro (10,50 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

### HELDUENTZAKO IPUIN-KONTAKETA

**19:00** "Solo cuando me rio", ipuin kontaketa saioa helduentzat, gazteleraz. Narratzailea: Virginia Imaz Quijera. Juan San Martin liburutegia.

## EGUENA 3

### HITZALDIA

**18:00/19:30** "Nola hitz egin minbiziari adingabeekin?". Doan. Antolatzailea: Minbiziaren Aurka Gipuzkoa. Elkartearen lokala (Ardantza, 11).

### ILLUNABARRIAN

**18:30** Itxura pertsonala hobetzen ikasteko saioa, Aitziber Badiolaren eskutik. Antolatzailea: ...eta kitto! Euskara Elkarte. ...eta kitto!-ren lokalak (Urkiyu, 11 solairuartea).

## ERAKUSKETAK

### Martxoaren 30era arte:

- **MAITE ARRIAGA**ren **Sormen Tailerrear parte hartu dutenen lanak.**

(Topaleku).

- **"EIBARKO ITSAS ABENTURA".**

(Armagintzaren Museoa).

### Apirilaren 27ra arte:

- **EIBARKO ARTISTEN ELKARTE**aren erakusketa kolektiboa. (Portalea).

### Apirilaren 29ra arte:

- **"BIZITZA ONERAKO ALTERNATIBAK"** erakusketa. (Andretxea).

### Apirilaren 30era arte:

- **"BURDINA HISTORIAN ZEHAR", 1. argazki-lehiaketaren erakusketa.** (Armagintzaren Museoa).

# ZINEA COLISEO

## 1 ARETOA

- **30an:** 17:00, 20:00
- **31n:** 20:30

### “Aún estoy aquí”

DRAMA



2024/Brasil/137'  
Zuzendaria: Walter Salles  
Aktoreak: Fernanda Torres, Selton Mello, Fernanda Montenegro  
**Politika / Bahiketak / Familia**

## 2 ARETOA

- **29an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **30ean:** 17:00, 20:00
- **31n:** 20:30

### “Grand Tour”

DRAMA



2024/Portugal/129'  
Zuzendaria: Miguel Gomes  
Aktoreak: Crista Alfalate, Gonçalo Waddington, Jani Zhao  
**1910-20. urteak / Birmania**

## ANTZOKIA


- **29an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **30ean:** 17:00, 20:00
- **31n:** 20:30

### “Blancanieves”

ABENTURA



2025/AEB/109'  
Zuzendaria: Mark Webb  
Aktoreak: Rachel Zegler, Gal Gadot, Andrew Bumap  
**Disneuren remakea / Fantastikoa**



7 plateretz osatutako dastatzeko menuak **65€**

**D** **G**

**Baratze - Belaustegi - Kanala  
Pikua - Txurruka - Urgain**

Martxoaren 28tik apirilaren 13ra

**GOURMET**



943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon behar da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak, **JULEN**, bixar urtebete egingo dozu-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Martinaren partez.



Zorionak, **HEGOI**, 8 urte honezkero, txapeldun! Musu erraldoia famelixa eta lagun guztien partez. Illargiraiño eta buelta maite zaittugu!



Zorionak, **JON**, astelehenian 7 urte beteko dozuz eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez. Asko maite zaittugu!



Zorionak, **aita**, zure 37. urtebetetzian eta **AARON** eta **NOA** bikixeri 4 urte egiten daben honetan. Nire talderik politena osatzen dozue. Ikaragarri maite zaittuen amatxoren partez.

merchandising

serigrafia

lanerako erropa

www.publiresa.com

publiresa@publiresa.com

943 701 497 / 615 799 419

Armagin, 3-5 behea

ek!

**Zure publizitatea herriko aldizkarian**

**688 621 535**

publizitatea@etakitto.eus

●●●

**FUNEUSKADI**

Grupo Asitua

●●●

**FUNERARIA MUGICA**

Funeuskadi

**24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951**

**www.funeuskadi.com**

**Eibar:**  
Otaola, 27

**Eibarko bulegoa:**  
Bidebarrieta, 20

**Elgoibar:**  
Xixilon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)

**Ermuako bulegoa:**  
Marqués de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao  
Portugaleta · Santurtzi · Basauri · Galdakao

# Iragarki laburrak



943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.2. Errentan

- Logelak alokatzen ditut Eibarren. 651479142.
- Logela bat hartuko nuke Eibarren edo inguruan. Gehienez 320 euro ordaintzeko. 627122105.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. 641910253.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta sukaldari bezala. 631730814.
- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko (sozio-sanitario titularekin), baita ospitalean ere, eta etxeko lanak egiteko. 660511781 eta 943742330. Elena.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauez ere. 642852854.
- Neska eskaintzen da goizez umeak zaintzeko. 640050714.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 632844780.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 632768653.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 642431753.

- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 611909082.
- Emakume euskalduna eskaintzen da arratsaldean nagusiak edo umeak zaintzeko. 665733162.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. 613073936.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako: zainketa, garbiketak... 613215006.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldean (13:00etatik aurrera) pegorak garbitzeko eta umeak zaintzeko. 620757528. Arrate.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 688691739.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. 686520473.

### 4.2. Langile bila

- Langilea behar da Armagintzaren Museoan ordezkapenak eta bisita gidatuak egiteko. Bidali CV: ondartzet@gmail.com
- Odontologo orokorra behar da Ermuko hortz klinika batean. Astean bat edo bi egunerako. Bidali CV: niklinika@gmail.com

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.1. Eskaerak

- Euskarazko irakaslea behar da B2 titulua ateratzeko klase partikularrak jasotzeko. 677689227.

### 5.2. Eskaintzak

- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

## 6. DENETARIK

### 6.1. Salgai

- Organo elektronikoa salgai. Antonenai markakoa. Doinuen akonpainamenduekin: vals, tango... Prezioa adosteko. 943752480.

# MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA  
JOSE MARIA ARZUMENDIARRIETA, KOOP. E.

Goi Mailako

Heziketa Zikloak

- | Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- | Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- | Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- | Mekatronika Industriala
- | Automatizazio eta Robotika Industriala

Espezializazio ikastaroa

- | Industria Mantentzearen Digitalizazioa
- | Eragiketa-teknologiaren Inguruneetako Zibersegurtasuna



TALENTU  
PROFESIONALA  
eskolatik - industriara

## ATE IREKIAK



11:00etan

**Apirilak 5**  
**Maiatzak 10**

664298683 // 664298704



### MANEX SARASUA ITURRIOZ

- Herria: Eibar
- Ikasketak: Batxilergo zientifikoa, Eibar BHI
- Gradua: Ikus-entzunezko komunikazioa
- Zaletasunak: Kirola egitea eta lagunekin aritzea

[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)

  
Mondragon  
Unibertsitatea



### Gure ikasleen ahotsan

## “Mondragon Unibertsitatea aukeratu nuen bere metodologia praktikoagatik eta industriarekin duen harremanagatik”

**1. Zergatik aukeratu zenuen gradu hau eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?** Ikus-entzunezko komunikazioa betidanik interesatu izan zait. Graduak aukera ematen dit ikus-entzunezko munduei ezagutzeko eta etorkizunean hori lan egiteko. Mondragon Unibertsitatea aukeratu nuen bere metodologia praktikoagatik eta industriarekin duen harremanagatik. Enpresekin lankidetzan aritzeko aukera ematen du eta benetako proiektuetan lan egitea oso aberasgarria iruditzen zait. Ikasgai guztiak modu praktikoan lantzen dira.

**2. Nolako izan da orain arte bizitako esperientzia?** Oso positiboa. Lehenengo urtetik proiektu errealek egin ditugu eta horrek asko lagundu dit ikus-

entzunezko prozesu osoa ulertzen eta, batez ere, taldean lan egiten. Ikaskideon artean oso harreman ona sortu da eta irakasleek oso gertuko tratua dute, beti laguntzeko prest. Errenka handiak egon arren, ikaskuntza modu praktikoan egiteak motibazio handia ematen du.

**3. Zein metodologia erabiltzen duzue?** PBL (Project Based Learning) erabiltzen dugu, hau da, proiektu errealean bitartez ikasten dugu. Taldeka lan egiten da berton, benetako erronkak lantuz eta kasu batzuetan enpresetarekin ikus-entzunezko edukiek sortuz. Metodo hau oso eraginkorra da; izan ere, hasieratik teoria eta praktika sakontzen direlako eta lan-munduekin benetako latura bat lortzen dugulako.

**4. Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna?** Gehien gustatzen zaidana hezkuntza praktikoa da, ikasitako benetako egoeretan aplikatzeko aukera ematen duelako. Horrez gain, talde-lanean aritzeak gainerakoekin harreman sendok izatea ahalbidetzen du. Baliabide teknologiko onak izateak eta irakasleek gertutasunez lan egiteak ere asko laguntzen du.

**5. Etorkizunari begira zein asmo daukazu?** Ikus-entzunezko edukienekoizpenaren arloan lan egitea gustatuko litzaidake: telebista, zinemak, streaming plataformak. Gidoigintza, errealdizazioa edo ekoizpena interesatzen zaizkit eta etorkizunean horietako batean espezializatzea gustatuko litzaidake.



## Ander Garcia

Eibartarra, 21 urte

**Berrikuntzako**

**Ingeniaritza**

**Dualaren ikaslea**

**IKASLEEN  
BIZIPENAK**

**Berrikuntzako Ingeniaritza Gradu Duala ikastea erabaki zenuen. Zergatik aukeratu zenuen Elgoibarko Ingeniaritza Dualaren Eskolan ikastea?**

Hasieran ingeniaritza konbentzionala egitea nuen buruan, ingeniaritza mekanikoa edo elektronikoa kasu. Hala ere, ikasketak egin ahala esperientzia irabazteko aukerak izateak izena ematera bultzatu ninduen. Gainera, betidanik izan dut interesa teknologiarekiko eta berrikuntzarekiko. Ingeniaritzan hasi aurretik, batxilergo teknologikoa egin nuen, eta adar horretako irakasgaiak —batez ere marrazketa teknikoa eta elektrizitatearekin lotutakoek— lagungarriak izan dira.

**Nolako esperientzia izaten ari da Berrikuntzako Ingeniaritza ikastea? Zer da gehien gustatzen zaizuna?**

Orain arteko esperientzia nahiko positiboa izaten ari da. Hala ere, egia da dualtasunak denbora gutxiago uzten didala espero nuena baino. Dena den, denbora ondo antolatuz gero, kirola eta aisialdia ikasketekin eta lanarekin uztartzea lortzen dut. Ikasgelan gutxi izateak ere laguntzen du, zalantzak argitzeko orduan erraztasun handiagoa baitago. Gainera, irakasleak oso gertukoak dira eta ahal duten guztian laguntzen digute.

**Zein enpresatan garatzen ari zara profil profesionala? Azaldu ahal diguzu zure 3. mailako Ikerketa Zientifiko Teknologikoa zer izan den?**

Gaur egun, Katea Legaian ari naiz lanean, Oñatiko tailerrean. Ardura teknikoak betetzen ari naiz, eta nire ikerketa zientifiko-teknologikoa muntaia-prozedura bat egiteko bi modu desberdin aztertzean oinarritzen da,

prozeduran hobekuntzak lortze aldera.

Metodologia zientifikoa kontuan hartuta, hainbat datu bildu ditut: zeregin bakoitzerako behar den denbora, langileen errendimendua, denbora-galerak eta mugimenduak. Datu horiek guztiak prozesatu ondoren, hausnarketa egin eta ondorio batzuk atera behar dira.

**Atzerriko misioa egiteko asmoa baduzu? Zer gustatuko litzaizuke egitea eta non?**

Datorren ikasturtean, irailetik aurrera, atzerrira joateko asmoa dut. Herrialde urrun batean esperientzia bizitzeko gogoak daukat, aukera paregabea dela iruditzen baitzait eta aprobetxatu nahi nuke. Ez daukat lehenetsunik herrialde zehatzik, izan ere, dudan ingeles-mailari esker edozein lekutan molda naiteke.

**Lan esperientzia izateko aukera eman dizu eredu dualak. Zure ustez, zure amets profesionalak betetzeko lagungarri izango da?**

Zalantzarik gabe, gazte izanda, heldutasuna irabazteaz gain, hiru urteko lan esperientzia baliotsua eskuratzen dugu. Horri esker, esperientzia eskatzen duten lanpostuetara iristeko aukera dugu, baita erantzukizunak hartu eta erabakiak hartzeko gaitasuna garatzeko ere.

**Gradu hau ikastera nor animatuko zenuke?**

Karrera honetan zientzia eta teknologiarren arlo desberdinak ikasten ditugu. Ingeniaritza hau gomendatuko nieke oraindik zein espezialitate aukeratu ez duten pertsoneri, baita lan-munduan ahalik eta lasterren hasi nahi dutenei ere, haren enplegarritasun handia dela eta.

**INFORMAZIO  
SAIOA  
Apirilak 5**



**Gehiago jakin nahi ?**

Eskatu zure saioa 943 748 264 telefonora deituz edo [ingeniaritza.ehu@imh.eus](mailto:ingeniaritza.ehu@imh.eus) helbidera mezua bidaliz